



2019KO AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUUA

NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 2019

GALDAKAOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA	4
ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	4
1. artikulua. Aplikazio-eremua	4
2. artikulua. Aurrekontu Orokorrak	4
3. artikulua. Aurrekontuen egitura	5
4. artikulua. Informazioa Udalbatzari	6
I. TITULUA: AURREKONTU OROKORRA	7
I. KAPITULUA: AURREKONTU OROKORRA 2019	7
5. artikulua. Aurrekontu Orokorra	7
6. artikulua. Gastuaren arduradunak	7
II. TITULUA. GASTUEN AURREKONTUA	8
I. KAPITULUA: AURREKONTUAREN KREDITUAK ZEHAZTEA	8
7. artikulua. Gastuen zatiko kredituen lotura juridikoa eta exekuzioa	8
8. artikulua. Kreditu orokorra	9
II. KAPITULUA: AURREKONTU ALDAKETAK	10
9. artikulua. Aurrekontuko aldaketak	10
10. artikulua. Kreditu gehigarriak	11
11. artikulua. Kreditu gaikuntza	13
12. artikulua. Kreditu-gerakinen txertaketa	14
13. artikulua. Bajak deuseztatzeagatik	16
14. artikulua. Kreditu-transferentziak	16
15. artikulua. Kreditu zabalgarriak	18
III. TITULUA: GASTUEN AURREKONTUAREN EXEKUZIOA	19
16. artikulua. Urteko aurrekontua	19
17. artikulua. Gastuen Aurrekontuaren kudeaketa faseak	19
18. artikulua. Gastuaren baimena	20
19. artikulua. Gastuaren xedapena	22
20. artikulua. Beste batzuen edo interesatuen fitxa edo fitxategia	22
21. artikulua. Betebeharraren aitortpena	23
22. artikulua. Gastuaren exekuzio-faseen pilaketa	24
23. artikulua. Betebeharrak aitortzeko behar diren dokumentuak	25
24. artikulua. Ordainketen agindu formala	26
25. artikulua. Ordainketaren agindu materiala edo ordaintzea	28
26. artikulua. Kreditu-lagapena	30
IV. TITULUA: ESPEZIALITATEAK GASTUEN PROZEDURA JAKIN BATZUEN TRAMITAZIOAN	32

27. artikulua. Pertsonal-gastuak	32
28. artikulua. Pertsonalaren ezohiko lanak	32
29. artikulua. Dietak eta indemnezio bereziak	32
30. artikulua. Ekarpinak eta diru-laguntzak	33
31. artikulua. Diru-laguntzen administrazio-tramiteak	33
32. artikulua. Inbertsio-gastuak	34
33. artikulua. Urte anitzeko gastuak: konpromiso-kredituak	35
34. artikulua. Eskubideak aitortzea	36
35. artikulua. Diru-bilketaren kontrola	36
36. artikulua. Kobrantzen kontabilizazioa	37
VI. TITULUA: DIRUZAINNTZA ETA ZORPETZEA	38
37. artikulua. Diruzaintza	38
38. artikulua. Diruzaintzako funtsen xedapen plana	38
39. artikulua. Bermeen prestazioa eta zorpetze muga	39
40. artikulua. Diruzaintzako gerakinak	39
41. artikulua. Funtsen Barne-mugimendua	39
VII. TITULUA: TALDE POLITIKOAK, GOI-KARGUDUNAK, KORPORAZIO-KIDEAK ETA KABINETEKO LANGILEAK	41
42. artikulua. Goi-kargudunen eta kabineteko langileen ordainsariak	41
43. artikulua. Korporatiboen indemnezioak kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik eta udal talde politikoaren diru-kopurua	42
VIII. TITULUA: KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA	45
44. artikulua.- Barne-kontrolako modalitateekiko loturak	45
45. artikulua. Kontu-hartzailetzaren eginkizuna gastuen aldetik egikaritzean, fiskalizazio mugatuaren bitartez	46
46. artikulua. Eragozpenak eta tramitazioa	50
47. artikulua. Kontu-hartzaileak a posteriori egindako kontrol osoari buruzko txostena	52
48. artikulua. Kontu-hartzailetzaren eginkizuna diru-sarreraren aldetik egikaritzean, fiskalizazio mugatuaren bitartez	52
49. artikulua. Kontrol finantzarioaren egikaritzea eta auditoria	54
50. artikulua. Diru-laguntzen eta laguntza publikoaren kontrol finantzarioa	55
51. artikulua. Eraginkortasun-kontrola egikaritzea	55
IX. TITULUA: EKITALDIA IXTEKO ERAGIKETAK	56
52. artikulua. Hartzekoak abenduan seinalatzea	56
53. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak egozteko irizpidea	56
54. artikulua. Beste erakunde publiko batzuek kofinantzatutako gastuak	56

55. artikulua. Kobrantza zalantzarriaren kalkulua	57
XEDAPEN GEHIGARRIAK	58
AZKEN XEDAPENA	61

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

KONTZEPTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki-erakundeen Aurrekontuetako, abenduaren 2ko, 10/2003 Foru Arauaren 6.3.c. artikuluan xedatutakoaren arabera: Aurrekontu Orokorrek 1. eta 2. ataletan (...) aipatzen den dokumentazioaz, eta ondoko dokumentuez osatuta egon beharko dute: (...) c) **Aurrekontua Gauzatze Aua**; bertan, besteak beste, nahitaez agertu behar dira bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak, erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkionak”.

9. artikulua: “Toki erakundeen aurrekontu orokorretan aurrekontua gauzatze araua egon behar da; bertan aurre-kontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara **moldatu** behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira: gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietsi eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomi administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere”.

1. artikulua. Aplikazio-eremua

Arau hau Aurrekontu Orokorren exekuzioari eta garapenari aplikatuko zaie, hortaz, Toki-erakundearen menpeko Erakunde Autonomoei eta gainerako Erakundeei aplikatuko zaielarik.

2. artikulua. Aurrekontu Orokorrak

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak Udalaren beraren Aurrekontuarekin eta menpeko Erakunde Autonomoenekin osatuta daude.

Finkatutako Aurrekontua Udalaren eta Erakunde Autonomoen aurrekontuak gehitutako emaitza da, euren arteko eragiketak kendu ondoren.

Galdakaoko udalaren eta Erakunde Autonomoen aurrekontuak, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen Aurrekontuko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 6.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa izan beharko du.

3. artikulua. Aurrekontuen egitura

Aurreko 1. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, Aurrekontu Orokorraren egitura Bizkaiko toki-erakundeen kontabilitatearen arau esparrua onesten duen uztailaren 28ko 139/2015 Foru-dekretuari egokitzen zaio, gastuen zatian esleitutako kredituak irizpide organikoekin, programa bakoitzeko, eta ekonomikoekin sailkatuz.

Ondorioz, kredituak konfiguratzeko egiturako irizpideak kontsideratuko dira programaka (gastu arloa, gastu-politika, programa-taldea eta programa bereiziz) eta ekonomikoa (kapitulua, artikulua, kontzeptua eta azpi-kontzeptua bereiziz). Irizpide horiei sailkapen organikoa erantsiko zaie, gastuaren ondoko Kudeaketa Arloak sartzen direlarik:

01.- BARNE ERREGIMENA, GIZA BALIABIDEAK ETA ANTOLAKUNTZA.

02.- OGASUNA ETA ONDAREA.

03.- HEZKUNTZA.

04. OSASUNA, GIZARTE-ONGIZATEA, TOKI-GARAPENA ETA ENPLEGUA.

05.- KULTURA, GAZTERIA, KIROLA ETA BERDINTASUNA

06.- HIRIGINTZA. LAN, ZERBITZU NAHI INGURUMENA

07-EUSKARA.

08.-UDALTZAINGOA.

09.- IDAZKARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK.

10.- GOBERNU ORGANOAK.

Ondorioz, aurrekontuko partida, sailkapen organikoa, programaka eta ekonomikoa elkaturik definitzen da, eta horren gainean gastuaren exekuzio-eragiketen kontabilitateko erregistroa egingo den unitatea izango da. Kontrol fiskala 7. artikuluan ezartzen den sail loteslean egingo da.

Aldi berean, Diru-sarrereren Zatian aurreikuspenak ezartzean sailkapen ekonomikoaren irizpidea soilik erabiltzen da, kapitulua, artikulua, kontzeptua eta azpi-kontzeptua bereiziz. Aukeran, gastuen zatirako ezarritako sailkapen organikoa erabili ahal izango da kontabilitatearen kudeaketa hobea izan dadin.

4. artikulua. Informazioa Udalbatzari

Kontu-hartzailletza Orokorrak, hiruhileko maiztasunez, zinegotziei bidaliko die Udalaren eta Erakunde Autonomoen aurrekontuen exekuzioari, hala nola aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketengatiko diruzaintzako mugimenduari eta bere egoerari buruzko informazioa, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan ezarritakoa betez. Informazio hau, nagusiki, baliabide elektronikoak, telematikoak edo informatikoak erabiliz emango da.

I. TITULUA: AURREKONTU OROKORRA**I. KAPITULUA: AURREKONTU OROKORRA 2019****5. artikulua. Aurrekontu Orokorra**

2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ondokoek osatzen dute:

Galdakaoko udala	Gastuak: 37.175.292 Diru-sarrerak: 37.175.292
Galdakaoko Udal Euskaltegia	Gastuak: 757.604 Diru-sarrerak: 757.604
Galdakaoko Musika Jardueren Udal Zentroa	Gastuak: 1.363.734 Diru-sarrerak: 1.363.734
Finkatutako Aurrekontua	Gastuak: 38.106.479 Diru-sarrerak: 38.106.479

6. artikulua. Gastuaren arduradunak

Gastuko programen arduradunek, dagozkien programetan esleituta dauden jardueren kudeaketaren erantzukizuna izango dute, kasu guztietan, indarrean dagoen araudian horri buruz ezartzen dena kontuan hartuz.

II. TITULUA. GASTUEN AURREKONTUA

I. KAPITULUA: AURREKONTUAREN KREDITUAK ZEHAZTEA

7. artikulua. Gastuen zatiko kredituen lotura juridikoa eta exekuzioa

Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean baimendu diren edo, izan dituzten aldaketengatik, behar bezala onetsi diren helburu espezifikorako soilik bideratuko dira, muga eta lotura izaera luketelarik. Ondorioz, gastuen konpromisoa ezin izango da kreditu horiek baino kopuru handiagokoa izan, arau hori urratzen duten erabakiak, ebazpenak eta administrazio-egintzak erabat deusezak liratekeelarik, dagozkien erantzukizunak eragotzi gabe. Muga hori betetzen den egiaztatuko da ondoren ezarritako lotura juridikoaren sailean.

Aurrekontuaren partidaren esleipena baino gastu handiagoa egiteko baimena eskatzen denean, aurreko artikuluan ezarritako lotura juridikoaren saila gainditu gabe, eskatzaileak esleipena ez dela aski eta gastua egin beharra justifikatu beharko du. Kontu-hartzaitzako organoak, alderdi horiei buruz, eta duten aukerari buruz, txostena egingo du.

Aurrekontua behar bezala kudeatzeko beharrezkotzat jotzen da gastuetarako kredituen ondoko lotura juridikoa ezartzea:

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

Kap.	Udala			Erakunde Autonomoak		
	Org.	Prog.	Ekon.	Org.	Prog.	Ekon.
1	-	-	1	-	-	1
2	-	1	1	-	1	1
3	-	1	1	-	1	1
4	-	1	2	-	1	2
6	-	2	2	-	2	2
7	-	1	2	-	1	2
8	-	1	1	-	1	1
9	-	1	1	-	1	1

Aurrez, aurrekontuaren arduradunek idatziz eta arrazoiturik eskaturik, dagokion Arloko Delegazioak ontzat emanda, aurrekontuaren exekutatzeko den bitartean, kredituen lotura juridikoaren sailen barruan, gastuak ondo egozteko behar diren partida ekonomikoak sortu ahal izango dira.

8. artikulua. Kreditu orokorra

Galdakaoko Udalaren Aurrekontuko Gastuen Zatian ordainketa orokorreko kreditua sartu ahal izango da, beste ordainketa-kreditu batzuen dotazioetan dauden askieztasunei erantzuteko edo, dotaziorik ez dutenean, beharizan berriei aurre egiteko, hala nola 10/2003 Foru Arauan xedatutakoaren arabera zabalgarritzat jotzen diren kredituak finantzatzeko.

Kreditu orokorra izendatuta dagoenean izango duen dotazioak ez du Toki Erakundearen Administrazioaren Aurrekontuko ordainketa-kredituen guztirakoaren %5 gaindituko, kreditu orokorraren beraren dotazioa barne.

Kreditu orokorrak ondoko prozedura bete beharko du:

- a) Ezin izango dira gastuak baimendu zuzenean kreditu orokor horren aurka.
- b) Kreditu orokorraren erabilera hasierakoa izango da beti eta hori inoiz ere ezin izango da handitu, ondoren egin litekeen aldaketa onetsi ezik, Udalbatzak baimenduta, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5aren muga errespetatuz.
- c) Kreditu orokorretik egindako transferentziei ez zaie 10/2003 Foru Arauaren 29. artikuluko xedapenak aplikatuko.

Kreditu orokorreko xedapenak Korporazioko Presidenteak baimendu behar ditu.

II. KAPITULUA: AURREKONTU ALDAKETAK

9. artikulua. Aurrekontuko aldaketak

Kontsignaziorik ez duen gastua egin behar denean eta lotura juridikoaren mailatik gorakoa denean, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-erakundeen Aurrekontuari buruzko, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan aipatutakoen artean, dagokion aurrekontu-aldaketako espedientea tramitatuko da, Arau honetan erregulatutako legezko preskripzioak eta berezitasunei jarraiki, ondoko zerrendaren arabera:

- a) Kreditu-transferentziak.
- b) Kreditu-gaikuntza.
- c) Kreditu-txertaketa.
- d) Bajak deuseztatzeagatik.
- e) Kreditu gehigarriak
- f) Hitzarmenak.

Aurrekontu-aldaketa guztiek, 3. artikuluan aipatzen direnen gastuaren Kudeaketa Arloaren aldetik, arrazoitutako proposamena eta beronen justifikatzeko txosten teknikoa beharko dituzte, onespeneren momentuan finkatutako helburuak lortzean izan dezaketen intzidentzia baloraturaz.

Aldaketa-espedienteek, aurretiaz kontu-hartzailearen kontrol-organoak txostena egin ondoren, ondoko artikuluek arautzen duten onesteko tramiteak bete beharko dituzte.

Aurrekontu-aldaketako espedienteak tramitatzeko gehienezko epea, eskabidearen datatik hasita hamar egun baliodunekoa izango da.

Aurrekontu-aldaketako espedienteak onestea Galdakaoko Udaleko Alkatearen eskumena denean, derrigorrezko Ebazpenaren bitartez baimendu diren datan sartuko dira indarrean. Ez dute ondoko beste tramiterik behar izango eta, gainera, Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran horren berri emango da eta ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, Finantza Egonkortasunari eta Jasangarritasunari buruzko nahitaezko txostenen berri ere emango da.

10. artikulua. Kreditu gehigarriak

Esleitutako ordainketa-krediturik ez dagoen gasturen bat egin beharko balitz, edo egonda ere, nahikoa ez balitz, eta estaltzerik ez balego, 10/2003 Foru Arauan araututako aldaketa-erregimenaren ondorioz, kreditu gehigarria emateko tramitera joko da.

Espediente horiek, gastuaren Kudeaketa Arloak eskaturik hasiko dira, Korporazioko Alkate Udalburuari zuzendutako eskabidea eginez, ekitaldian gastua egin behar dela eta, kredituen lotura duen mailan, krediturik ez dagoela edo nahikoa ez dela justifikatzeko memoria teknikoarekin batera. Alkate Udalburuak proposamena aztertuko du eta, egokitzen jotzen badu, dagokion espedientea hasteko aginduko du.

Espedienteak handitu behar den aurrekontuko partida konkretua eta proposatzen den gehikuntza finantzatzeko bidea edo baliabidea zehaztu beharko ditu.

Kreditu gehigarriak ondoko baliabideekin finantza daitezke:

- a) Diruzaintzako Gerakin Likidoaren kargura.
- b) Aurrekontu arruntean aurreikusitako guztirakoen gainean, diru-sarrera

berriekin edo kitatutako diru-sarrera handiagoekin, halakoak normaltasunez egiten ari direla ziurtatzen bada, izaera finalista izan behar badute edo hala badute izan ezik.

c) Indarrean dagoen Aurrekontuko beste partiden kredituak deuseztatzeagatikو bajen bitartez, dotazioak murriztu daitezkeenean dagokion zerbitzuan gorabeherarik sortarazi gabe.

Inbertsio-gastuetarako kreditu gehigarriak finantza daitezke, aurreko atalean adierazitako baliabideez gain, kreditu-eragiketetatik datozenekin ere.

Toki-erakundearen osoko Bilkurak beste finantzaketa bideak ez direla aski onartzen duenean, eta Korporazio-kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoaz hartutako erabaki bidez, berariaz beharrezkotzat eta presakotzat joko diren gastu berriak edo handiagoak eragiketa arrunten bidez finantzatzeko baliabide benetan xedagarritzat joko dira, kreditu-eragiketetatik datozenak, ondoko baldintzak denak batera ematen badira:

a) Urteko guztirako zenbatekoak Erakundearen Aurrekontuko eragiketa aruntengatik lortutako baliabideen 100eko 5 ez gainditzea.

b) Erakundearen karga finantzarioak, izaera edozein dela ere, tramitazioan egindako eragiketetatik eratorritakoa barne, adierazitako baliabideen 100eko 25 ez gainditzea.

c) Hitzartu dituen Korporazioa berri baina lehen eragiketak itxita geratzea.

Kontu-hartzaile Orokorrek aurretiaz txostena egin beharko duen espedientea Korporazioaren Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, onetsi dezan, Aurrekontuek dituzten tramite eta baldintza berberak betez. Era berean, 10/2003 Foru Arauaren 15, 17 eta 18 artikuluetan aipatzen diren Aurrekontu Orokorren informazioari, erreklamazioei, publizitateari eta baliabideei buruzko arauak aplikatzekoak dira.

Udal Erakunde Autonomo Administrazio batean krediturik ez balego edo aski ez balitz, Erakunde horren Organo eskudunak proposatu beharko du dagokion espedientea hastea, Toki-erakundeari bidaliz tramita dezan, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera.

Korporazioko Udalburuari egozten zaio, urtean metatuta, Aurrekontuaren hasierako kredituen %5 baino gehikuntza suposatzen ez duten kreditu gehigarriak onesteko eskumena, eta 9. artikulua azken paragrafoan adierazitakoa aplikatu zaio.

Toki-erakundearen erabakiek interes orokorreko aparteko lazeria publikoak edo antzeko kasuetarako kreditu gehigarriak eman nahi dituztenean, berehala betearazi beharrekoak izango dira. Nolanahi ere, horien aurkako erreklamazioak susta daitezke, baina prestazioaren ondoko zortzi egunen barruan gauzatu beharko dira. Izan ere, ez dira onartuko, ebazpenak errekurtsogileari epe horren barruan jakinarazten ez bazaizkio.

11. artikulua. Kreditu gaikuntza

Toki-erakundearen edo Erakunde Autonomoen Aurrekontuen diru-sarrera zatietan aurreikusi ez diren ekitaldietan lortutako diru-sarrerek, edo horietan aurreikusitako zenbatekoa gainditu dutenek kredituak sor ditzakete aurrekontu Orokorreko Gastuen Zatian, ondoko eragiketen ondorioz:

a) Pertsona naturalek edo juridikoek, Toki-erakundearekin edo Erakunde Autonomoen batekin batera, duten izaeragatik, euren xede edo helburuen barruan dauden gastuak finantzatzeko ekarpenak, edo ekarpen-konpromiso irmoak.

b) Toki-erakundearen edo Erakunde Autonomoen ondasunak besterentzea.

c) Zerbitzuen prestazioa.

d) Maileguren diru-itzulketak.

e) Bere kasuan, beste erakunde publikoetatik Aurrekontu Orokorren kargura jasotzen diren beste ekarpen batzuk.

f) Behar ez bezala egindako ordainketen itzulketa, ekitaldi itxiei dagozkienak.

Kreditua sortzeko ezinbesteko baldintza da:

a) Aurreko ataleko a), b) eta e) kasuetan, eskubidea aitortzea edo ekarpen-konpromiso irmoaren izate formala, hau da, egintza bat izatea, erakundeak edo pertsonak, publikoak edo pribatuak, elkar behartzen dituen, Toki-erakundearekin edo Erakunde Autonomoekin akordio edo hitzarmen bat eginez, gastu jakin bat osorik edo partzialki

finantzatzeko era garbian edo baldintzatuan. Eragindako erakundeek, bere kasuan, akordioan bere gain hartu dituzten betebeharrak beteta, diru-sarrera egiteko konpromisoak erakundeek eska dezaketen kobrantza-eskubidea izango du.

b) c) eta d) ataletan ezarritako kasuetan, eskubidea aitortzea; nolana ere, kreditu horiek erabil daitezke eskubideen benetako diru-bilketa egin bada.

c) Aurrekontu itxien itzulketen kasuan, itzulketa kobratzeko eraginkortasuna.

Eskubideen diru-bilketaren eraginkortasuna edo konpromisoaren izate formala edo eskubidearen aitortzea arrazoitu ondoren, espedientea tramitatuko da, dagokion gastuaren Kudeaketa Arloko arduradun teknikoak proposamena eginez hasita. Galdakaoko udalaren alkateari dagokio onestea, lortutako diru-sarrerak finalistak direnean. Gainerako kasuetan, eskumen hori Osoko Bilkurari dagokio; hori guztia, Toki-erakundearen zein babestutako Erakunde Autonomoren baten Aurrekontuaren aldaketa bada, kasu guztietan, aurretiaz Kontu-hartzaile Orokorrek nahitaez txostena egin behar duelarik. Espediente horiek onespren-datatik hasita betearazi beharrekoak izango dira.

12. artikulua. Kreditu-gerakinen txertaketa

Onartutako betearazi beharrekoek eraginda ez dauden aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak, kasu bakoitzean, hurrengo ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Gastuen Zatietako kredituei txerta dakizkieke, beti ere horretarako baliabide finantzario nahiko badaude, ondoko zerrendaren arabera:

a) Ekitaldiko azken hiruhilekoan, eman edo baimendu diren kreditu gehigarriak, hala nola kreditu-transferentziak, hurrenez hurren.

b) Bidezko arrazoiengatik betebeharra bete ezin izandako gastu erabilgarriei dagozkien kredituak.

c) Gaitutako kredituak eta eragindako diru-sarrerei lotutako beste kreditu batzuk.

d) Kapitaleko eragiketen bidez lortutako kredituak.

Helburu horretarako, Kontu-hartzaile Orokorrek ondoko zatiak prestatuko ditu:

a) Gastu-konpromisoen saldoak, betebeharrak euren kargura onartu ez direnak.

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

b) Kreditu gehigarriak eta kreditu-transferentziak emateko espedienteek eragindako partidetan dauden gastu-konpromisoak eta kreditu erabilgarri buruzko baimenen saldoak, ekitaldiko azken hiruhilekoan onetsi edo baimendutakoak.

c) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartu diren konpromisoak finantzatzeko partidetan dauden gastu-konpromisoak eta kreditu erabilgarri buruzko baimenen saldoak.

d) Eragindako eskubideen benetako diru-bilketari lotutako partidetan dauden gastu-konpromisoak eta kreditu erabilgarri buruzko baimenen saldoak.

Kreditu-gerakinak txertatzeko espedienteak tramitatu ahal izan daitezten, baliabide finantzario gisa joko dira ondokoak:

a) Diruzaintzako Gerakin Likidoa.

b) Aurrekontu arruntean aurreikusitako diru-sarrera guztien gainean diru-sarrera berriak edo handiagoak.

c) Aurreko ekitaldiko aurrekontuan jasotako eta formalizatu gabeko edo konprometitu gabeko zorra.

Eragindako finantzaketa duten gastuetarako kreditu-gerakinak txertatuz gero, baliabide finantzario askitzat joko dira ondokoak:

a) Lehenetsunez, soberazko finantzaketak eta txertatu nahi diren gerakinei eragiten dieten ekarpen-konpromiso irmoak.

b) Halakorik ezean, aurreko a) eta b) ataletan jasotako baliabide orokorrak, gastu ez finantzarriaren zatiari dagokionean, bere kasuan, eragindako baliabideekin.

Baliabide finantzarioek txertatu beharreko kreditu-bolumena estaltzeko bestekoak ez balira, Presidenteak, aurretiaz Kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, jardueren lehenetsuna ezarriko du.

Txertatu diren kredituak txertaketa egin den ekitaldi barruan egin beharko dira. Ez da bidezkoa izango txertaketak bata bestean atzean egitea, diru-sarrera finalistekin finantzatutako kapital-eragiketarako direnean izan ezik. Izan ere, nahitaez txertatu behar

dira, gastua exekutatzen hasi edo jarraitzeko guztiz edo partzialki atzera egin ezean edo egitea ezinezkoa balitz.

Arau honetan dauden xedapenen arabera, dagozkien aurrekontuetan, ekainaren 30erako, txerta daitezkeen kredituak txertatu ez badira, ezeztatuta geratuko dira.

Kontu-hartzaile Orokorrak espedientea egin eta baliabide finantzario aski dagoela egiaztatuta, honela tramitatuko da:

- Eragindako gastuaren Arloko Arduradun teknikoaren eskabidea.
- Presidentearen probidentzia.
- Kontu-hartzailera orokorraren txostena.
- Alkateak emandako onespren-ebazpena.

Hala tramitatu diren espedienteak, onespren-datatik hasita, betearazi beharrekoak izango dira.

13. artikulua. Bajak deuseztatzeagatik

Aurrekontu Orokorreko partidei izendatutako kredituan gutxitze osoa edo partziala suposatzen duten Gastuen Zatiko aldaketak dira.

Baja deuseztatzeagatik eman daiteke Gastuen Zatiko edozein kreditu, kreditu erabilgarriko saldoaren kopuruaz, dotazio hori dagokion zerbitzua nahastu gabe murriztu edo deusezta daitekeenean.

Kreditua bajan eman daiteke, ondokoagatik:

- a) Diruzaintzako gerakin negatiboen finantzaketa.
- b) Kreditu gehigarrien finantzaketa.
- c) Toki-erakundearen Udalbatzak hartutako beste erabakiak exekutatzea.

Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako kredituen bajak deuseztatzeagatik osoko-bilkurak onartuko du.

14. artikulua. Kreditu-transferentziak

Kreditu-transferentzia gastuen aurrekontuaren aldaketa bat da, hala, aurrekontuaren guztirakoan alteraziorik egin gabe, kreditu baten guztirako kopurua edo kopuru partziala

aurrekontuko beste partida batzuei egotz dakiekeelarik.

- Transferentzien erregimenaren arabera edo kreditu gehigarrien bitartez handitu diren ordainketa-kredituak ez minoratuko, ezta dagokion konpromiso-kreditua handitu dutenak ere, 10/2003 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kreditu zabalgarriak minora daitezke baina kalifikazio hori galduz eta, beraz, gerora ezin izango dira handitu.
- Beste transferentzien ondorioz minoratu diren kredituak ez dira handituko.

Aurreko mugek ez die langileen kredituei dagozkien kreditu-transferentziei eragingo, eta Korporazioaren Osoko Bilkurek onetsitako administrazio-berrantolaketen ondorioz egindako transferentziak direnean ere ez dira aplikatzekoak izango.

Kreditu-transferentziek aurrekontuko partida berriak sortzea eragin dezakete.

Kontzeptu honengatik tramitatzen diren espedienteak gastuaren Kudeaketa Arloko arduradun teknikoak eskatuta hasiko dira eta, aurretiaz Kontu-hartzaile Orokorrek txostena egin ondoren, Galdakaoko udalaren Alkate-dekretuz onetsiko dira, programa-talde bereko partiden artean denean, benetako inbertsioetarako aurreikusitako kontsignazioak minoratzen dituztenak salbuetsita. Era berean, programa-talde desberdinen arteko transferentziak ere Alkateari dagozkio, jatorriko eta destinoko programa-taldeetan pilatu den aldaketan bariazioak aurreikusitako hasierako kontsignazioak baino %25 gainditzen ez duenean, eta benetako inbertsioetarako kontsignazioak minoratzen dutela salbu. Korporazioko Alkatearen eskumeneko espedienteak onespenez datatik betearazi beharrekoak izango dira.

Inbertsio arloko transferentziak direnez, Korporazioaren Aurrekontuan onetsitako Inbertsioen Eranskinean hasi batean ez dagoen proiektu bati kreditua transferitu nahi zaionean, ez da beharrezkoa izango Eranskin hori aldatzea. Hala ere, urteko kontuen parte den Memorian, aurrekontu orokorretako dokumentuekiko, ekitaldian izandako aldaketak jasoko dira.

Bestela, Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio kreditu-transferentzien espedientei onespenez ematea, aurretiaz Kontu-hartzaile Orokorrek txostena egin eta Ogasun eta Ondare Informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, 10/2003 Foru Arauaren 15, 17 eta 18 artikuluetan adierazten diren informazio, erreklamazio eta publizitateari buruzko araei jarraiki.

Toki-erakunde honen mendeko Erakunde Autonomo Administrazioek kreditu-transferentzia eragiketa mota hau egin dezakete, aurreko ataletan xedatutakoari jarraiki. Kasuen arabera, aipatutako organo horiei dagokie, Organo interesdunaren Presidenteak proposaturik, Kreditu-transferentzia horiei onespena ematea.

15. artikulua. Kreditu zabalgarriak

Ordainketa-kreditu zabalgarriak izango dira, printzipioz mugatuak izanik ere, aurretiaz ezarrita dauden edo ezar daitezkeen erregelamendu bidezko formalitateak bete aurretik, kredituari edo kredituei zuzenean, horri buruz indarren dauden xedapenen arabera, eragin dieten diru-sarreraren benetako diru-bilketaren arabera, igo daitezkeenak.

Kreditu zabalgarriak dira ondokoak:

- Publizitate gastuak
- Exekuzio subsidiarioak.
- Hirigintza-lanak.
- Diru-bilketa.

III. TITULUA: GASTUEN AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

16. artikulua. Urteko aurrekontua

Ekitaldian egindako gastuetatik eratorritako betebeharrak har daitezke soilik Aurrekontu Orokorraren Gastuen Zatiko kredituen kargura.

Hala ere, salbuespen gisa, indarrean dagoen Aurrekontuko kredituei aplikatuko zaizkie, aitortzen diren unean, ondoko betebeharrak:

a) Langileei dagozkien atzerapenak likidatzekoak. Korporazioko Presidentea edo, bere kasuan, Udal Erakunde Autonomo Administratiboko Presidentea da aitortpena emateko organo eskuduna.

b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartu diren gastuen konpromisoetatik datozenak, aurretiaz dagozkion kreditu-gerakinak txertatu ondoren.

c) Udaltzaren Osoko Bilkurak, aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren aitortpen estrajudizialetatik datozenak.

17. artikulua. Gastuen Aurrekontuaren kudeaketa faseak

Entitatearen eta menpeko Erakunde Autonomoen Aurrekontuko Gastuen Zatiak kudeaketa ondoko faseen arabera egingo da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren xedapena edo konpromisoa.
- c) Betebeharraren aitortpena eta likidazioa.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa.

Hala ere, berariaz hala ezartzen den kasuetan, administrazio-egintza berberak aipatutako exekuzio-fase bat baino gehiago har ditzake, metatzen dituen egintzak bereizitako administrazio-egintzetan erabakiko balira bezalako ondorio berberak eraginez. Esklusiboki, ondoko kasuak eman daitezke:

- a) Baimena-Xedapena.
- b) Betebeharraren Baimena-Xedapena-Aitorpena.

Kasu honetan, Ebazpena edo erabakia hartzen duen Organoak eskumena izan beharko du bertan sartzen diren fase guztiak eta bakoitza onesteko.

18. artikulua. Gastuaren baimena

Gastuaren baimena da exekuzio-prozeduraren hasiera, gastu jakin bat, kopuru zehatza jarrita edo gutxi gorabeherakoa, egitea erabakitzen duen administrazio-egintza izanik, horretarako aurrekontuko kreditu osoa edo zati bat gordetzen delarik. Baina horrek ez du Toki-erakundetik kanpoko beste inorekin erlaziorik inplikatzeko.

Kredituak izateari edo ez izateari buruzko ziurtagiriak gehienez hamar egun balioduneko epean eman eta jakinarazi behar zaizkio eskatzaileari. Kontu.-hartzaile organoak uste badu eskatzaileak proposatutakoa ez den beste aurrekontuko partidari egotzi behar zaiola, hark dagokion partida adierazi beharko du, azken honi dagokion ziurtagiria eginez. Azkenik, kontu-hartzaile organoak gastua egotzi zaion aurrekontuko partidan kreditu erabilgarririk ez dagoela uste badu, kreditu erabilgarriaren zenbatekoa adierazi beharko du lotura juridikoa ezarri den mailan.

Ikastaroetara eta prestakuntza-jardunaldietara joategatik sortarazitako gastuei dagokienez, kreditua izateari buruzko ziurtagiria ez da eskatu beharko, ikastaroak kontzeptu guztiengatik sortaraz dezakeen guztirako gastua 500,00 eurotik beherakoa denean.

Era berean, kreditu izateari buruzko ziurtagiria ez da eskatu beharko, gastuak sor ditzaketen informazio-jardunaldietara edo lan-bileretara joategatik.

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

Langileen kontratazioei dagokienez, plantillako langileren bat ordezkatu behar denean (ezintasun iragankorragatiko baja, eszedentziagatiko edo erretiroagatiko lanpostu hutsa...), ez da kreditu izateari buruzko ziurtagiria eskatu beharko.

Era berean, epaiketarako joategatik eratorritako gastuetarako ere ez da kreditu izateari buruzko ziurtagiria eskatu beharko.

Korporazioaren Osoko Bilkura edo Udalburua izango da gastua baimentzeko organo eskuduna, dagokionaren arabera, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 21. artikuluan (Alkatea) eta 22. artikuluan (Osoko Bilkura) xedatutakoaren arabera.

Udal Erakunde Autonomo Administratiboetan, Aurrekontuen kredituei eragiten dieten gastuen baimena ematea Erakunde horien Organoei dagokie, Estatutuetan ezarrita dituzten eskuantzen arabera.

Kontratazio-espeditentea egin behar den gastu guztietan, kontratazio zuzena izan arren, gastuaren baimenari dagokion «A» dokumentua tramitatuko da espeditentearen hasieran, proiektuak edo Kudeaketa Arloak egindako aurrekontuko duen kostuaren besteko zenbatekoaz.

Talde honetakoak dira:

- a) Inbertsioko edo mantenuko obretakoak
- b) Ibilgetua eskuratzekoak.
- c) Izaeragatik, baimenaren eta xedapenaren faseak bereiztea komeni den beste batzuk.

Aurrekoa hala izanik ere, horniketei, aholkularitza- eta laguntza-lanei, eta zerbitzuei buruzko prestazioetan, urteko kopuruan 15.000,00 eurotik gorakoa ez denean (Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo utzita), eta urteko kopuruan 40.000,00 eurotik gorakoak ez diren obretan (Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita), espeditentearen tramitazioa proposatzen duen Arloko arduradun teknikoak sinatutako faktura banakaturik txertaturik nahikoa izango da, gastua ADO fase bakarrean exekutatu.

Kasu guztietan, kontratu txikiak kontratazio arloan gaur egun dagoen araudiaren arabera

tramitatuko dira.

19. artikulua. Gastuaren xedapena

Gastuaren xedapena edo konpromisoa da, aurretiaz baimendutako gastua egiteko erabakia hartzen den egintza. Eragin juridikoa dauka beste batzuekiko eta Toki-erakundea gastu zehatz eta jakin batekin lotzen du, kopuru mailan zein exekutatzeko baldintzetan.

Gastuen xedapenak, hirugarren bati adjudikatzeko fasearen balio berekoa izanik, nahitaezkoa du berori identifikatzea, administrazio-egintzan, bere izena edo helbide sozial osoa adieraziz, baita Identifikazio fiskaleko zenbakia ere (IFZ/IFK).

Hirugarrena udal datu-basean sortuta egongo ez balitz edo bertako daturen bat aldatu izan balu, eragindako gastuko arloak nahitaez bere identifikazioa ziurtatu beharko luke (IFK/IFZ) dokumentua egoki eta osorik beteta erantsiz. Dokumentu hori Erakunde honen web-orrian lor daiteke.

Gastuen xedapena onesteko organo eskudunak dira baimena emateko eskumena dutenak.

20. artikulua. Beste batzuen edo interesatuen fitxa edo fitxategia

Udalaren edo Erakunde Autonomoen hartzekodun guztiek, hartzekodun zuzena zein endosatzailea izan, Sarrera-erregistroan, Diruzaintzan edo udal Kontu-hartzailertzan irekitzeko eskabidea edo, bere kasuan, "Hirugarrenaren fitxa"ko datuak aldatzeko eskabidea aurkeztu beharko dute, egoki beteta, bere aldeko transferentzia agintzeko, "dagoen ereduaren arabera. Fitxa horrek hirugarrenaren identifikazio datuak eta kontu korrontea jaso behar ditu, bere Finantza-erakundeak ziurtaturik, bere alde emandako udal ordainketak bertara bidaliko zaizkiolarik.

Kontu-hartzailertzari dagokio interesdunaren datu guztiak, oso-osorik kontabilitate-programan grabatzea. Fitxategi hori etengabe eguneratuta mantenduko da.

Enbargo eta atxikipen judizialei, administrazioaren enbargoei eta administrazioaren kabuz erabaki diren zorren konpentsazioei buruzko datuak altan emango ditu Kontu-hartzaitzak Hirugarrenen Fitxategian.

Aurreko paragrafoan aipatutako gorabeheraren bati buruzko ebazpen administratibo edo judiziala helduko balitzaio gastu-kudeatzaile zerbitzu bati edo Kuxa ordaintzaile bati, berehala Kontu-hartzaitzara bidali beharko dute Hirugarrenen Fitxategian sar dadin.

Interesdunari ez zaio hirugarrenen fitxa eskatuko itzulketengatiko ordainketa egiteko, bere kontu korrontea udalaren esku dagoenean, berean saldoari, edo antzeko egoerari, buruzko enbargoa egin delako, hori udal Diru-bilketa Arloak edo Diruzaintzak egiaztatu beharko duelarik.

21. artikulua. Betebeharraren aitortpena

Toki-erakundearen edo Erakunde Autonomoren baten aurka eska daitekeen kreditua, baimendutako eta konprometitutako gastu batetik eratorritakoa dagoela deklaratzeko duen egintza da, aurretiaz organo eskudunaren aurrean, prestazioa edo hartzekodunaren eskubidea dokumentu bidez egiaztatuta, bere garaian gastua baimendu eta konprometitu zuten erabakien arabera.

Zerbitzu baten prestazioa edo horniketa edo obra bat egite hutsa ez da aski Toki-erakundea edo Erakunde Autonomoren bat kontzeptu horren zordun dela aitortzeko, organo eskudunak baimendu eta xedatu ez baditu. Aurretiaz baimenik izan ez bada, materialak eta efektuak itzultzeko kide bakarreko betebeharra edo hornitzailea edo exekutatzailea indemnitzatu beharra suerta daiteke.

Betebeharra aitortzeko frogagirik gutxienez ondoko datuak jaso beharko dituzte, Hirugarren Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera bete beharko direlarik:

a) Erakundearen identifikazioa.

b) Kontratataren identifikazioa.

c) Fakturaren zenbakia eta data.

d) Horniketaren, zerbitzuaren, lanaren edo exekutututako obraren eta abarren beste adinako deskribapena.

e) Gastu horri buruz, bere kasuan, aurretiaz fakturatutako guztirako zenbateko osoa, zerga-oinarria, Balio Erantsiaren gaineko Zerga mota eta zenbatekoa zehaztuz.

f) Kontratistaren sinadura.

g) Obren ziurtagiriak oinarritzen diren baloratutako erlazioen bidez justifikatuko dira, obraren aurrekontuak duen egitura bera izan beharko dutelarik, eta, zenbakiz edo alfabetoko hizkiz adieraziko dute dokumentu batean eta bestean zehaztutako partiden arteko lotura.

Aipatutako frogagiriak onesteko, Galdakaoko Udalaren edo Erakunde Autonomoen Erregistroan sartu beharko dira eta ondoren gastua egiten duen Kudeaketa Arloa bidaliko dira, onespena izan dezaten; zerbitzua, horniketa, lana, obra, asistentzia, aholkularitza eta abar, kontratuko baldintzen arabera egin direla egiaztatuz.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa betez, Kontu-hartzailatza Orokorrari helaraziko zaizkio, fiskalizatuak izan daitezen. Eragozpenik egonez gero, gastuaren Kudeaketa Arloari itzuliko zaizkio, antzemandako okerrak zuzen daitezen, posible balitz, edo, bestela, bidezko oharrekin hornitzaileari itzuliz.

Onespenarekin fiskalizatu ondoren, Korporazioko Udalburuari edo eragindako Udal Erakunde Autonomo Administratiboari aurkeztuko zaio onespena eman dezan.

22. artikulua. Gastuaren exekuzio-faseen pilaketa

Zenbateko txikia duten eragiketa arrunteko gastuak egintza bakarrean pila daitezke. Bereziki, ondokoak:

-Dietak, lokomozio-gastuak, indemnizazioak, asistentziak eta korporazioko kideen eta era guztietako langileen ordainsariak, horretarako Aurrekontuarekin batera onetsi den lanpostuen koadroan agertu behar direlarik.

-Berandutze-interesak eta beste finantza-gastu batzuk.

-Langileei itzultzeko aurrerakinak.

-210, 211, 212, 213, 214, 215, 220, 221 kontzeptuen horniketak eta foruko, autonomiako edota estatuko legeriak ezarri dituen gastuak.

-Aurrekontu orokorrean izendun gisa agertzen diren diru-laguntzak.

-Alokairuak, kontratatutako aseguru-primak eta arreta finkoak, egoki onetsitako kontratuaren ondorioz ordaindu behar direnean.

-Gizarte-segurantzako kuotak eta langileen gizarte-laguntzako gainerako arretak.

-Posta, telegrafo, telefono, fax eta internet zerbitzuen gastuak aurrekontuko kredituaren barruan.

-Eta, orokorrean, ondasun konkretuak eskuratzea eta kontratazio-prozesuari lotu gabeko gainerako gastuak. Kasu honetan sartuta jotzen dira faktura bakoitza 3.005,06 eurotik beherako horniketak.

23. artikulua. Betebeharrak aitortzeko behar diren dokumentuak

1. Langileen gastuetarako, ondoko arauak bete behar dira:

a) Behin-behineko langileen, funtzionarioen eta lan-itunpekoen oinarrizko eta osagarritzko ordainsariak hileko nominen bidez justifikatuko dira, langile horiek onetsitako aurrekontuaren kodearekin izendatuta dituzten zerbitzu konkretuen arabera banatuta. Aipatutako ordainsariak Korporazioko Alkateak edo Erakunde Autonomoko Presidenteak onetsi behar ditu, aurretiaz Kontu-hartzailera Orokorrak fiskalizatu ondoren, dagokion administrazio-espedientean Langileen Arloko Arduradunak, indarrean dagoen legeriaren arabera, egiaztatzen duen txostena egon behar duelarik.

b) Zerbitzu berezien edo apartekoen eskersari gisako ordainsariak sortzen dituzten zerbitzuen prestazioari buruzko, hala nola produktibitate-osagarriaren ordainketaren jatorriari buruzko egiaztagiria beharko da, berori arautzen duen lege-araudiaren arabera.

2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetarako, dagokien faktura aurkeztu beharko da, arau honetan ezarritako eskakizunak eta prozedurak betez.

Faktura elektronikoa bultzatu eta kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, hala nola, ekainaren 24ko HAP/492/2014 eta HAP/1074/2014 Aginduek faktura elektronikoa puntu orokorraren bitartez aurkeztu behar dela ezartzen dute. Horregatik, 2018ko urtarrilaren 1etik hasita, 5.000 eurotik gorako hornitzaileen fakturak bide elektronikoz soilik onartuko dira.

3. Finantza-gastuei dagokienez, halakotzat hartuta Aurrekontu Orokorreko Gastuen Zatiko III. eta IX. Kapituluetan daudenak, ondoko arauak bete behar dira:

a) Zuzenean banku-kontuan kargatu diren interesengatik edo amortizazioengatik sortutakoak justifikatu beharko dira, finantzaketa-koadroari jarraiki, Kontu-hartzaile

Orokorren Adostasunarekin.

b) Modu berean jardungo da aurretiaz onetsitako bestelako finantza-gastuak direnean, kasu honetan frogagiriak erantsi beharko direlarik, fakturak izan zein likidazioak edo dagokion beste edozein gastu izan.

4. Transferentzia arruntak edo kapitaleko transferentziak direnean, betebeharra aitortuko da «O» dokumentuaren bitartez, ordainketa baldintzatuta ez balego. Gainerako kasuetan, tramitazioa ez da hasiko, baldintza betetzen ez den bitartean.

5. Inbertsio kasuetan, kontratistak egindako obren ziurtagiria aurkeztu beharko du, onartutako ereduaren arabera eta dagokion fakturarekin batera. Ziurtagiri horiek, aldi jakin batean exekutatzegatik sortutako gastuari dagozkion dokumentu ekonomikoak diren aldetik, oinarritzen diren baloratutako zerrenden bidez justifikatu beharko dira, obraren aurrekontuak duen egitura bera izan beharko dute eta dokumentu batean eta bestean zehaztutako partiden arteko korrespondentzia zenbaki edo alfabetoko ikurren bidez adieraziko dira.

24. artikulua. Ordainketen agindu formala

Ordainketa agintzaileak, aitortutako eta likidatutako betebeharrean oinarrituta, egin duen egintza da, horren bidez Entitatearen Diruzaintzaren kontra dagokion ordainketa-agindua ematen duelarik. Ordainketa-aginduak ematea ezartzen den Funtsen Xedapen Planari egokitu beharko zaio, Alkate Udalburuak bertan zehaztu duen aldizkakotasunaren eta indarraldiaren arabera.

Alkate Udalburuaren eskumena da ordainketak agintzea. Nolanahi ere, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, eginkizun hori izendatzen den zinegotziak egikaritu ahal izango du. Kasu guztietan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-dekretuz onetsitako Tokiko Korporazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 43. eta 44. artikuluei dagokienean, eta aplikatzeko gainerako araudiaren arabera, Alkate udalburuak ordainketak agintzea edozein zinegotziri delega diezaioke, delegatzen duen Dekretu berean ezarritako mugen arabera.

Ordainketa-aginduaren administrazio-egintza ordainketa-aginduen zerrendetan gauzatuko da eta bertan, gutxienez, eta betebehar bakoitzarentzat ondokoak jaso beharko

dira: zenbateko gordina, deskontuak edo atxikipenak bere kasuan, zenbateko likidoa, hartzekodunaren identifikazioa eta eragiketak egotzi behar zaizkien aurrekontuko aplikazio edo aplikazioak.

Era berean, ordainketa betebeharrak berezi eta zehatzekiko indibidualki agindu daitezke. Betebeharren aitorpena eta ordainketa-aginduak aurrekontu-aplikazio berberei egozten zaizkienean eta izaera bereko konpromisoak betetzeko direnean, hartzekodunen eta zenbateko gordin eta likidoen identifikazioa zerrenda gehigarrietan isla daiteke, bakoitzaren betebeharrak indibidualki ordainduz, funtsen transferentziaren bitartez, interesdunek aipatutako Banku edo finantza-erakundeetan dauden kontu korronteetan. Ordainketa-aginduan, hartzaile gisa, transferentzia-aginduak exekutatzeko arduratzen den Banku edo finantza-erakunde laguntzailea agertuko da. Metatutako ordainketa-aginduek, zerrenda gehigarriekin batera, ordainketa-agindu bakanduek bezalako eraginkortasuna izango dute hartzekodunekiko zerrendan.

Ordainketa-aginduak Udalaren edo Erakunde Autonomoen Diruzaintzak emango ditu, likideziaren erabilgarritasunaren arabera eta diruzaintzako Aurrekontuari eta, bereziki, Funtsen Xedapen Planen horietaz erabakitzen denari egokituko zaio, hurrenkera errespetatuz. Edozein modutan ere, ordainketa-aginduek indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituko zaio epe eta baldintzei dagokienean.

Erakunde Autonomoetan, Korporazioaren Alkateak dituen eskumenak Erakundearen Presidenteari egotzi zaizkiola ulertzen da.

“P” kontabilitate-agiriak dituen modalitate guztiak desagertzen dira. Azaroaren 23ko EHA/4041/2004 Agindua (Ekonomia eta Ogasuna), Toki Kontabilitateko eredu normalaren Instrukzioa onesten duenari jarraiki, ordainketa-aginduaren erregistroaren partida bikoitza kentzen da, barne-eragiketa den aldetik, beste batzuen aurrean eduki ekonomikorik gabe. Hala ere, erregistro hori mantentzeko Funtsen Xedapen planaren exekuzioa kontrolatzeko edo bestelako jarraipenak egiteko tresna gisa. Ordainketa-agindu formala jasotzen zuen “P” kontabilitate-fasea desagertuta (ordainketa-aginduaren euskarri dokumental gisa balio zuena), ordainketa-agindua jasotzen duen “P” kontabilitate-agiririk ematea ez da beharrezkoa izango. Nolanahi ere, ordainketa agintzen jarrai daitezke.

Ordainketa-aginduen zerrendak, ordainketa materialen zerrendekin batera eta aldi berean

tramita daitezke, dokumentu horretan bi faseak adierazi beharko direlarik (ordainketa-agindua eta ordainketa materiala).

Kontabilitate-agiriak udal Diruzaintzara paperean eramatea, ordainketak egin ditzan, kenduko da. Kontu-hartzaitzak amaituko du gastuaren O fasea kontabilizatzen, eta Diruzaintzak, kontabilitate-programatik, ordainketa-proposamenak emanez joango dira, Funtzen Xedapen Planean aurreikusitakoaren arabera. Nolanahi ere, beharrezkoa denean, dokumentu jakin batzuk eskatuko dira egiaztatzeko.

Ekonomia eta finantza kudeaketan administrazio-eraginkortasunagatik, udal Diruzaintzak aplikatu gabeko ordainketak edo aurrekontutik kanpoko ordainketak emango ditu, kontuan kargatutako bankuen edo antzeko komisio, interes eta beste gastuengatik, bidezkoa denaren arabera, koadratzeko, kontabilitateak irudi fidagarria islatzeko, eta kontura kargatutako ordainketa guztiak aginduta egoteko. Nolanahi ere, ondoren gastuaren espedientea tramita daiteke. Diruzaintzak aurretiaz baimendu gabe kontura kargatutako bankuen edo antzeko gastuak kontabilitatean erregistratuko ditu. Nolanahi ere, finantza-erakundeari erreklama dakioke gastua birjar dezan, edo ondoren baliozkotu eta Aurrekontuari behin betiko aplikatu diezaion.

25. artikulua. Ordainketaren agindu materiala edo ordaintzea

Ordainketaren agindu materialak edo ordaintzeak suposatzen du Udalaren edo Erakunde Autonomoen kargu daudela aitortzen diren betebeharrak betetzen direla, funtsen irteera materiala ala ez suposatzen dutenaren arabera, hurrenez hurren, eskudiruzko ordainketetan eta ordainketak formalizazioan.

Udalaren edo Erakunde Autonomoen Diruzaintzari dagokio ordainketak agintzeko eta exekutatzeko eginkizun administratiboa.

Eskudiruzko ordainketa ondoko bideren batez egingo da, bakoitzarentzat ezartzen diren eskakizun eta baldintzekin.

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

a) Banku transferentzia.

b) Txekea, “izenduna, ez agindurakoa” izango da. Hala ere, ordainketa “eramaile-txeke bidez egingo da, zeharkatua kontuan ordaintzeko” izena, helbidea edo hartzailearen izena dokumentuan fisikoki osorik sartzerik ez dagoenean.

c) Gordailuen Kutxa Nagusian kontsignatzeagatik.

d) Postazko igorpena.

e) Ordainketa telematikoa, NRC-a lortuz, AEAT-aren likidazioetan edo autolikidazioetan edo eskatu den kasuetan.

f) Aurreko ataletan ezarritakoaz gain, finantza-eragiketetatik eratorritako gastuen ordainketa, zehazten den udal kontu korrontean, “banku-helbideratze” bidez egin ahal izango da, kontratua hala ezartzen bada.

g) Salbuespen gisa, ordainketa materiala “zordunketa kontura” egingo da, beste Administrazio publikoek ezarritako prozedura-arauek edo ordaintzeko betebeharrak dituen ezaugarriek edo izaerak hala eskatzen dutenean.

Ordainketa-bide nagusia, Finantza-erakunde Laguntzaileen bidez egindako transferentziarena izango da.

Kasu guztietan, ezarritako edozein bidetatik egiten den ordainketa materiala, Alkate Udalburuaren, Kontu-hartzailearen eta Diruzainaren, edo legalki ordezkutzen dituztenen baterako sinadurarekin egingo da, bai Udalean bai Erakunde Autonomoetan. Txeketak eta transferentzia-aginduak Presidenteak –edo, delegazioa izanez gero, Udalaren edo bere mendeko Erakunde Autonomoen Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak, Kontu-hartzaileak eta Diruzainak batera baimenduko dituzte. Hala ere, Udala eta Erakunde Autonomoak betebeharretatik liberaturik geratuko dira soilik txekea hartzekodunak kobratu duenean edo bere erruz kalte egin denean, Kode Zibilaren 1.170 artikulua ezarritakoaren arabera. Hala ere, txekea entregatze hutsak, ordainketa kontabilizatzeari bide eman diezaioke. Nolanahi ere, gordailu-erakundeekin saldoak berdin daitezke baita, bidezkoa den kasuetan, kontabilizazio hori deusezta daiteke ere.

Orokorrean, segurtasunagatik, kobrantza eta ordainketa guztiak bankuetako tresnen

bitartez egingo dira, hala nola, txekea eta transferentzia-aginduak. Era berean, arintasunagatik eta eraginkortasunagatik, banku elektronikoz egindako transferentziaren bitartez ere ordain daiteke, beti ere eremu informatiko seguru batean egiten bada eta eragiketak idatziz jasotzen badira.

Ordainketa-aginduak eman ondoren, nahitaez, Diru Bilketako Erregelamendu Orokorrak hala xedatzen duelako, Udal Diruzaintzak ordainketa-agindu horiek zordunen epe exekutiboko datu-basearekin zeharkatuko ditu, zor horiek hirugarren baten aldeko kredituarekin konpentsatuz dagokion zenbatekoarekin. Udalaren Erakunde Autonomoetatik egiten diren ordainketetan hartzekodunen kredituak zorra betearazteko bidean duen udalari enbargatuko diote.

Ordainketa arloan, oinarri hauetan aurreikusi ez bada, betebeharrak ordaintzeko Estatuko Administrazio Orokorraren prozedurari buruzko Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren araudian xedatutakoak izaera osagarria izango du.

26. artikulua. Kreditu-lagapena

Hirugarren alde aitortu diren betebeharrak laga daitezke Zuzenbidearen arabera. Horretarako, lagatzaileek jakinarazpen fede-emailea bidali beharko dute Udal Diruzaintzara, laga den betebeharra eta zenbatekoa adiera bakarraz identifikatuz, hala nola, izena, identifikazio fiskala eta lagapen-hartzailearen berariazko onarpena. Horretarako, udalean dagoen eredu normalizatua erabil daiteke, Udaleko Sarrera-erregistro Orokorrean inskripzioa egin den unetik ondorioak izango lituzkeelarik.

Hirugarren baten aldeko kreditu sortzen da bere aldeko betebeharra aitortzearekin. Horregatik, betebeharrak hori ematen ez den bitartean, ezin izango da hori laga. Era berean, espektatibak diren aldetik, gerorako kreditu-lagapenik ez da onartuko.

Jakinarazpena eta ordainduko zaion hirugarrenaren aldaketa, Udal Diruzaintzak egingo du aurreko eskakizunak bete direla egiaztatu ondoren, lagatzaileari ordainduko diolarik berariazko ebazpenik eman beharrik gabe, gorabeherak edo aurkako jarrerak dauden kasuetan izan ezik.

Aurka egoteko arrazoirik balego, Udalaren kargura dagoen betebeharra aitortuta ez egoteagatik, betearazpen-bidean Udal Ogasunaren lagatzaile zorduna izateagatik, borondatezko bidean aurretiaz kreditu-kompentsazioa eskatu izangatik, lagatzaileak beste

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

Administrazio edo Epategien aldetik oztoporik edo enbargorik izateagatik, organo kontu-hartzaileak eteteko eragozpena formulatu dituzten betebeharren aitorpen-espeditentean izateagatik, hala nola galaraz dezakeen edozein beste lege-arrazoirik egoteagatik, aurkakotza lagatzaileari zein lagapen-hartzaileari jakinaraziko zaie.

Lagapen-hartzaileari zenbateko osoz ordainduko zaio, Udal Diruzaintzaren Funtsen Xedapen Planaren arabera eta ordainketa guztiek dituzten ohiko tramiteak eginda.

IV. TITULUA: ESPEZIALITATEAK GASTUEN PROZEDURA JAKIN BATZUEN TRAMITAZIOAN

27. artikulua. Pertsonal-gastuak

Udalbatzak plantilla eta lanpostu-zerrenda onesteak oinarritzko ordainsarrietatik eta osagarrietatik eratorritako gastua onestea suposatzen du eta dagokion gastuaren «BX» baimen-xedapen dokumentua benetan okupatutako lanpostuei dagokien zenbatekoz tramitatuko da, ekitaldiaren hasieran.

Hileko nominek, «O» betebeharren aitorten-dokumentuaren eginkizuna beteko dute eta Korporazioaren Presidenteari aurkeztuko zaio, ordaintzeko agindua eman dezan.

Funtzionarioak izendatzean edo lan-kontratuko langileak kontratatzean, bere kasuan, ekitaldian ordaintzea aurreikusitako nominei dagokien kopuruaren besteko zenbatekoz, «BX» dokumentuak bat bestearen atzetik tramitatu beharko dira.

Gizarte-segurantzari eta Elkarkidetzari ordaindutako kuoten ondorioz, ekitaldiaren hasieran, «BX» dokumentua tramitatu beharko da aurreikusitako kotizazioen besteko zenbatekoz. Bariazioak egongo balira, aipatutako agiriaren dokumentu osagarriak edo alderantzizkoak egin beharko dira.

Aurrekontuaren I. Kapituluko gainerako gastuetarako, betebeharrekoak eta ezagunak badira, «BX» dokumentua tramitatuko da ekitaldiaren hasieran. Aldaketak egon daitezkeenean, jardueren edo hartzaileen inguruabar pertsonalen arabera, arau orokorreki jarraiki kudeatuko dira.

28. artikulua. Pertsonalaren ezohiko lanak

Alkateak eta zinegotzi delegatuek soilik agindu dezakete zerbitzuak presta daitezen legezko lanalditik kanpoko orduetan eta beharrezkotzat jotzen den bulegoan.

Arlo bakoitzaren arduradunak izango dira ezohiko lanaren benetako prestazioa eman izanaren erantzuleak.

29. artikulua. Dietak eta indemnizazio bereziak

Ibilgailuak erabiltzegatiko gastuak eta Erakundearen intereserako egindako bidaiengatiko

indemnitazioak, Aurrekontuaren gastuen zatiko 230 eta 231 kontzeptuen kargura ordainduko dira, presidenteak emandako aginduaren ondorioz, Kontu-hartzaileak fiskalizatuko dituelarik: Halako gastuak ondoko arauen arabera ordainduko dira:

a) Hautapenezko karguei eta behin-behineko langileei, zenbateko ezaguna eta justifikatua.

b) Funtzionario edo lan-kontratuko langileei, dagozkien zenbatekoak, momentu bakoitzean indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera.

30. artikulua. Ekarpinak eta diru-laguntzak

Toki-erakundeak edo Erakunde Autonomoek, aurrekontuko kredituen kargura, tramitatu behar dituzten diru-laguntzak, indarrean dagoen Galdakaoko Udalak diru-laguntzak ematea arautzen duten Ordenantza Orokorrean ezarritakoaz arautuko dira.

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoaren 8. artikulua arabera, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onetsi beharko du. Plan horretan, nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztuko dira, lortzeko behar den epea, aurreikusitako kostuak baita finantza-iturriak ere, kasu guztietan, aurrekontuaren egonkortasun-helburuak bete beharko direlarik.

31. artikulua. Diru-laguntzen administrazio-tramiteak

Beste Administrazioei egin beharreko ekarpinak direnean, zenbatekoa ezaguna denean, ekitaldiaren hasieran «BX» dokumentua tramitatuko da. Hala egingo ez balitz, kreditua atxikitzea eskatuko da aurreikusitako zenbatekoaz.

Aurrekontuan ezarrita dauden diru-laguntza izendunetarako, ekitaldiaren hasieran, «BX» dokumentua tramitatu beharko da. Gainerakoetarako, dokumentu berbera egingo da emakidapenaren momentu berean.

Edozein diru-laguntza emakidatzeko, espedientea bat prestatu beharko da, bertan ondokoa jaso beharko duelarik:

- Funtsen helburua
- Ordaindu ahal izateko bete behar diren eskakizunak.
- Bere kasuan, jasotako zenbatekoen dirua itzultzeko arrazoiak.

Diru-laguntzaren ordainketa-agindua eman ahal izateko, Kudeaketa Arloak egiaztatu beharko du emateko erabakian eskatzen diren baldintzak bete direla. Baldintza horiek, duten izaeragatik, funtsak jaso ondoren bete beharko balira, Zentro Kudeatzaileak, kasu guztietan, bete beharko diren epea ezarri beharko du.

Orokorrean, kasu bakoitzak dituen berezitasunak berezitasun, kontzeptu horregatik jaso diren funtsen aplikazioa justifikatzeko, ondokoa izan beharko da kontuan:

a) Diru-laguntzaren helburua obrak edo instalazioak egitea bada, beharrezkoa izango da udal zerbitzu teknikoek obra edo instalazioa emakidapenaren baldintzen arabera egin izanari buruzko txostena egitea.

b) Material suntsikorrak eskuratzeko, zerbitzuak emateko edo antzeko izaerako helburu baterako bada, egindako gastuen jatorrizko egiaztagiria aurkeztu beharko dira, Hirugarren Xedapen Gehigarrian dauden preskripzioen arabera.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikularen 2. ataleko c) hizkiak eta Galdakaoko Udalak Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko lehenengo bi paragrafoetan adierazten diren diru-laguntzen emakidapen zuzena emateko, horrelako diru-laguntzak arautzen dituen arau bereziak aurretiaz Alkateak onetsi beharko ditu, berorietan, gutxienez, aipatutako legearen 28. artikularen 8. atalean adierazitako baldintzak jaso beharko liratekeelarik.

32. artikulua. Inbertsio-gastuak

Lehen establezimenduko edo kapitaleko obretarako edo zerbitzuetarako gastuak tramitatzeko, aurretiaz dagokion proiektu teknikoa edo memoria baloratua onetsi beharko du Organo eskudunak, kasu guztietan, kontratazio arloan indarrean dagoen lege-araudia errespetatuz.

Aurrekontua onesteak, «KA», kreditu-atxikipenaren dokumentuaren indarraldia hastean, Inbertsio Eranskinean dauden inbertsio-proiektu guztiei buruzko tramitazioa eragingo du.

33. artikulua. Urte anitzeko gastuak: konpromiso-kredituak

Gastu anitzeko gastuak dira, ondorio ekonomikoak, baimendu eta konprometitu den urte ondorengo ekitaldietara hedatzen direnean.

Konpromiso-kredituen kudeaketa, 10/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan eta hori garatzen duten xedapenetan xedatutakoak esango du.

V. TITULUA: DIRU-SARREREN AURREKONTUA

34. artikulua. Eskubideak aitortzea

Eskubideak aitortuko dira Erakundearen alde egindako likidazioa dagoela ezagutu bezain azkar. Ondorio horietarako, likidazioa adostasunez fiskalizatu ondoren, onetsiko da eta, aldi berean, kontabilitatean horren idazpena jasoko da, ondoko arauen arabera:

a) Aurretiazko zorpekinaren eta zuzeneko diru-sarreraren likidazioetan, eskubidea aitortzea kontabilizatuko da, dagokion likidazioa onesten denean.

b) Aurretiazko hartzeakoaren eta ordainagiriagatiko diru-sarreraren likidazioetan, errolda onesten den momentuan kontabilizatuko da.

c) Autolikidazioetan eta aurretiazko hartzekorik gabeko diru-sarreretan, aurkezten direnean eta zenbatekoa diru-sarrera egin denean.

Beste Administrazioen, Entitateen edo partikularren aldetik jaso beharreko diru-laguntzen edo transferentzien kasuetan, eskakizun jakin batzuk betetzen dituztenean, erabaki formalaren momentuan kontabilizatuko da konpromisoa.

e) Tributu itunduetan izandako parte-hartzea hilero kontabilizatuko da, aldi berean, entrega aitortzea eta kobrantza.

f) Itundutako maileguetan, xedapenak ematen diren heinean, eskubideak aitortzea eta dagozkien diru-kopuruen kobrantza kontabilizatuko dira.

g) Interesen eta beste errenten kasuetan, eskubidea aitortzea sortzapenaren momentuan sortuko da.

35. artikulua. Diru-bilketaren kontrola

Kontu-hartzaitzak zergen likidazioak puntualki egitea ziurtatzeko eta diru-bilketaren kudeaketaren emaitzarik onena izaten saiatzeko dagokion neurriak hartuko ditu.

Diru-bilketaren kontrola Diruzaintzari dagokio, eta berak diru-bilketa arloan indarrean dagoen araudia aplikatzea, hala nola balioen kontaketa egiaztatzeko prozedura ezarri beharko du.

Deuseztapen, etete, atzeratze eta zatikatze arloan, Toki Ogasunen Foru Arauan, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Erregelamenduan dagoen araudia aplikatuko da.

36. artikulua. Kobrantzen kontabilizazioa

Diru-bilketatik datozen diru-sarrerak, aurrekontuko aplikazioa ezagutzen ez den bitartean, aplikatu gabeko diru-sarrera gisa kontabilizatuko dira, ematen diren momentutik, kaxa bakarrean sartuz.

Gainerako diru-sarrerak dagokion manamenduaren bitartez formalizatuko dira, dagokion aurrekontuko kontzeptuari aplikatuz, diru-sarrera izan den unean.

Kudeaketa Arloek diru-laguntzak eman izanari buruzko informazioa dutenean, Kontu-hartzaitzari eta Diruzaintzari jakinarazi beharko diote berehala, beroien jarraipena egin ahal izan dadin.

Edozein ordainketa banku-kontuetan egiten den unean, Diruzaintzak Kontu-hartzaitzari jakinarazi beharko diote, kontabilitatea formalizatzeko.

VI. TITULUA: DIRUZAINZA ETA ZORPETZEA

37. artikulua. Diruzaintza

Baliabide finantzario guztiak Toki-erakundearen Administrazioaren Diruzaintzakoak dira, Erakundearen dirua, balioak edo kredituak, bai aurrekontu-eragiketakoak zein aurrekontuz kanpokoak izan.

38. artikulua. Diruzaintzako funtsen xedapen plana

Funtsen Xedapen Plana udal Diruzaintzaren plangintza-tresna da, ordainketen lehenetsun-hurrenkerari buruzko arauak ezartzen dituena, altxortegiaren egoeratik Toki-erakundeak ordaindu gabe dituen betebeharrak guztiei aurre egin ezin dienean. Zentzu horretan, Funtsen Xedapen Planak, Erakundearen Diruzaintzaren kudeaketa efizientea eta eraginkorra izateko faktoreak kontuan hartuko ditu.

Diruzaintzak prestatu eta Udalburuak onetsi duen Funtsen Xedapen Planak legerian ezarritako ordainketen lehenetsunak errespetatuko beharko ditu: zor publikoa, langileen gastuak eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrak.

Funtsen Xedapen Planik ez badago, 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoaren (Zor Publikoa) 14. artikulua eta martxoaren 5eko 2/2014 Legegintzako Errege-dekretua, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duenaren 187. artikulua (langileen gastuak eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrak) ordainketak lehenetsiko dira, eta urteko ekitaldiko betebeharren barruan 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 71.2 artikulua aplikazioa lehenetsiko da (espedienteak bideratzean izaera homoginoa duten gaietan hasiera-ordena hertsiki zainduko da, administrazio-unitatearen titularrek arrazoiturik kontrako agindurik ematen ez badu, berori jasota geratuz).

Betebeharrak ekonomikoa benetan hasi izana den O fasearen produkzioa litzateke hasteko hurrenkera. Hala ere, kontratu-jatorria duten gastuetarako, ziurtagiriaren edo egiaztagiriaren datatik bi hilabete itxaron beharko da, betebeharraren aitortze-egunean epe hori amaituta ez balego.

39. artikulua. Bermeen prestazioa eta zorpetze muga

Galdakaoko udalerako bermeen prestazioaren gehienezko maila (abalak, kontra-abalak, fidantzak, gordailuak e.a.) aurreikusitako zenbatekoaren 100eko 5ean ezartzen da, eragiketa arruntengatiko diru-sarreretan. Alkateari ahalmena ematen zaio behar diren tramite administratiboak egiteko, hala nola paragrafo honetan adierazitako muga gainditzen ez den bermeen prestazioa proiektua onetsi eta zehazteko, adjudikatzeko, formalizatzeko eta sinatzeko.

Zorpetzeari dagokionez, diru-sarrera ez-finantzarioen gaineko finantzaren zor publikoaren %60ko muga onartzen da gehienez 2019rako.

2019ko ekitaldirako zorpetzea baliogabetuko da.

40. artikulua. Diruzaintzako gerakinak

Udal Diruzaintzaren aurreikuspen-zatietatik ondorioztatzen bada aldi baterako likideziako gerakinak daudela, Diruzaintzaren kudeaketa errentagarri izateko, kasu guztietan, Ezarpenak edo Gordailuak Epe Finkoan eta Aktiboaren Aldi baterako Lagapenak Finantza Erakundeetan horretarako irekitako gerakin-kontuetan jarri ahal izango dira, aurrez zehaztutako interesa eta iraungipen datadun finantza-kontuetan gauzatuko direlarik.

Kontu operatiboak gerakin-kontuetara intsuldaketa, Alkateak, Kontu-hartzaileak eta Diruzainak batera sinatuta egingo da.

Eragiketa amaitzean, interesak eta printzipala zuzenean Erakunde Finantzario horren kontu operatiboan ordainduko dira.

41. artikulua. Funtsen Barne-mugimendua

Udal Diruzaintzako funtsen irteera guztiak, aurrekontuak edo aurrekontutik kanpokoak izan, udal organo eskudunak emandako administrazio-egintza beharko du aurretiaz, salbuetsita Udal Diruzaintzako eskumenekoak diren diruzaintzako barne-mugimenduak eta, kasu berezietan, Udalari hirugarren batzuek edo beste Administrazio batzuek egin behar ez zituzten apunteak edo diru-sarrerak zuzentzean.

TOALaren Testu Bateginaren 196.1.c) artikuluan aurreikusitako eginkizunak garatzean

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

eta bete daitezzen, Udalaren edo Erakunde Autonomoen kontu desberdinen arteko intsuldaketa edo transferentzia guztiak, gordailu-erakunde berean edo desberdinean egon, hala nola eragiketa horretatik eratorritako kontabilitate-agiriak (Diruzaintzako Barne-mugimendua), Udal Diruzaintzako eskumenak izango dira. Udal Kontu-hartzaileak funtsen intsuldaketei buruz egoki jotzen dituen fiskalizazio-jarduerak zehaztuko ditu.

VII. TITULUA: TALDE POLITIKOAK, GOI-KARGUDUNAK, KORPORAZIO-KIDEAK ETA KABINETEKO LANGILEAK

42. artikulua. Goi-kargudunen eta kabineteko langileen ordainsariak

Alkateak eta dedikazio osoko edo partzialeko korporazio-kideek jaso beharreko urteko ordainsari gordinak, antzinasuna salbu, ondokoak izango dira:

- Alkatea (ded. osoa).....	75.453,51 €
- Lehen Alkateordea (ded. %75).....	50.930,77 €
- Zinegotzi delegatua (ded. %75).....	50.930,77 €
- Zinegotzi delegatua (ded. %75).....	50.930,77 €
- Oposizio esanguratsuenaren zinegotzi delegatua (ded. osoa).....	67.907,64 €

Edozein kasutan eta aurrekoa bete daitekeen arren, ordainsari-kontzeptu guztietarako aurreko kargudun bakoitzak gehienez jaso dezaketen guztirako muga (zerbitzu berezietako egoeran dauden karrerako funtzionarioek eskubidea duten hirurtekoak kanpo), ekainaren 9ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2015 Foru-dekretuan xedatutakotik eratorritakoa izango da.

Zuzendari postua duten behin-behineko langileek jaso beharreko urteko ordainsari gordinak, antzinasuna kanpo eta, bere kasuan, dedikazio berezia, Idazkari Orokorraren postuak jasotzen dituzten bezalakoak izango dira (lanpostuaren kodea 100, dotazioa 1), kontzeptu guztiak batuta, antzinasuna kanpo eta, bere kasuan, dedikazio berezia.

Aurrekoaren arabera, behin-behineko langileek jaso beharreko urteko ordainsari gordinak, antzinasuna salbu, ondokoak izango dira:

- Antolaketa aholkularia.....	57.750,05 €
- Arreta eta Komunikazio Arduraduna.....	62.615,84 €
- Alkatetzako idazkaria.....	40.766,69 €

Antolaketa aholkulariak aurretiaz adierazitako diru-kopuruen gaineko %20ko gehigarria jasoko du erabateko prestasuneko dedikazio bereziagatik.

Arreta eta Komunikazio Arduradunak aurretiaz adierazitako diru-kopuruen gaineko %20ko gehigarria jasoko du erabateko prestasuneko dedikazio bereziagatik.

Tarteko diren langileek adierazitako diru-kopuruak jaso ditzaten, aurreko 22. eta 23. artikuluetan adierazitakoa aplikatu behar da. Era berean, postu horiek betetzen dituzten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen orokorrean egongo dira altan, Galdakaoko Udalak berari dagozkion enpresako kuoten ordainketa bere gain hartzen dituelarik.

43. artikulua. Korporatiboen indemnizazioak kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik eta udal talde politikoen diru-kopurua

Galdakaoko udalaren Korporazio-kide guztiek, dedikazio eskusiboan edo partzialean daudenak izan ezik, Udalbatzaren osoko bilkuretara, Gobernu Batzordekoetara, Informazio-batzordeetara, Bozeramaleen Batzordera eta kide anitzeko beste edozein organoetara, hala nola, Udal Erakunde Autonomoen Zuzendaritza-kontseiluetara eta organo propioetara benetan joateagatik indemnizazioak jasoko dituzte.

Gehigarri gisa, udal talde politiko desberdinek udal-jarduera garatzeko diru-izendapena jasoko dute. Hala ere, diru-kopuru hori ezin izango da Korporazioaren zerbitzura dagoen edozein motatako langileei ordainsariak ordaintzeko edo ondare aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko.

Hori guztia, ondoko xehetasunen arabera:

1.- UDAL TALDE POLITIKOENTZAKO DIRU-IZENDAPENAK

- A) Talde bakoitzeko..... 581,00€ euro/hileko
- B) Zinegotzi bakoitzeko.....182,00€/hileko

2.- BENETAKO ASISTENTZIAGATIKO INDEMNIZAZIOAK (KORPORATIBO BAKOITZARI)

A) Asistentziak Osoko Bilkuretara:

Finkoa.....240,00€/bilkurako

Aldagarria:

- Talde politikoen bozeramaleak.....100,00€/bilkurako
- Gainerako korporazio-kideak.....0,00€/bilkurako

B) Asistentziak Bozeramaleen Batzordeetara:

Finkoa.....125,00€/bilkurako

Aldagarria.....0,00€/bilkurako

C) Asistentziak informazio-batzordeetara:

Finkoa.....100,00€/bilkurako

Aldagarria:

- Batzordearen presidentea.....100,00€/bilkurako
- Zinegotzi delegatua/k.....0,00€/bilkurako
- Talde politikoen bozeramaleak.....0,00€/bilkurako
- Gainerako korporazio-kideak.....0,00€/bilkurako

2.1 Osoko Bilkuretarako asistentziak, lehenago adierazitako diru-kopuruak ordaindu beharko liratekeenak, ekitaldi bakoitzeko, denak 14 izango dira.

2.2 Udal Erakunde Autonomoen Artezkaritza-kontseiluetara joateagatiko diru-kopuruak organo beroriek erabakiko dituzte eta dagozkien aurrekontuei egotziko zaizkie. Diru-kopuru horiek 2.5 atalean aipatzen diren ordainsarien gehienezko muga izango dute.

Dedikazio eskusiboko edo partzialeko karguak betetzen dituzten korporazio-kideek ez dute diru-kopururik jasoko udal Erakunde Autonomoen artezkaritza-kontseiluetara joateagatik.

2.3 Korporazio-kide batek dagokion batzordearen Presidente, delegatze edo taldearen bozeramale karguetako batzuk bere gain hartzen baditu, inguruabar horietako batengatik soilik sortuko da zenbateko aldagarria. Osagai aldagarria inguruabar bakoitzerako desberdina balitz, bi zenbatekoengatik handiena sortuko da.

2.4 Asistentzien sortzapena eta ordainketa

Asistentzien sortzapenerako eta ordainketa egiteko erreferentziazko aldi baterako epea hilabetekoa izango da.

Dagokion hilabeteko asistentzia gordinen ondorioz, zinegotzi batek 750,00 eurotik gorako diru-kopurua sortuko balu, diru-kopuru hori izango da hilabete horretan gehienez ordainduko zaiona. Hala ere, sortu den gehiegizkoa metatuko da eta 750,00 eurotik beherako diru-kopurua duten hilabeteetan osatuko da aurreko hilabeteetan sortutako gehiegizkoekin, gehienez hileko 750,00 euro horietaraino. Diru-kopuruaren muga horrek ez die talde politikoen bozeramaleei eragingo.

Sortu diren hileko gehiegizkoak kontuan hartuko dira soilik dagokien urte naturalean, urte desberdinei dagozkien hilabeteak konpentsatu ez izango direlarik. Era berean, konpentsatzeko, gehiegizkoa sortu aurreko hilabeteetan sortutako 750,00 eurotik beherako diru-kopuruak ez dira kontuan hartuko, soilik ondokoetakoak.

2.5 Diru-kopuruen mugak

Dedikazio eskusiboa eta partziala duten karguetarako, aurreko artikuluan aurreikusitako mugez gain, gainerako korporazio-kideek asistentziengatik eta beste edozein ordainsarien kontzeptuengatik jaso ditzaketen gehienezko diru-kopuruak ondokoak izango dira:

Talde politikoen bozeramaleak	21.000,00 euro -urteko gordinak-
Gainerako korporazio-kideak	9.000,00 euro -urteko gordinak-

2.6 Gastuaren exekuzio-faseen kudeaketa hilabeteko aldizkakotasunez egingo da eta Alkate Udalburuaren edo berak delegatu dion Organoaren eskumena izango da, Idazkaritza Orokorreko Arloak aurretik egindako justifikatzeko txostena egin ondoren.

VIII. TITULUA: KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

Udalaren barne-kontrola, Galdakaoko udalak barneko jardueraren eta ekonomia, finantza eta kontabilitate kudeaketaren gainean, hala nola bere mendeko erakundeen gainean, legez ezarritako baldintzen arabera, ezartzen duen kontrola eta fiskalizazioa da. **Nabarmendu behar da Kontrol eta Fiskalizazioari buruzko VIII. Titulu honetan xedatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 22ko 117/2018 Foru-dekretua, Bizkaiko Tokiko Sektore Publikoko erakundeetako barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenari egokitu beharko zaiola”.**

44. artikulua.- Barne-kontrolako modalitateekiko loturak

Bat. Udalaren, eta Erakunde Autonomoen, kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren barne-kontrola foru-araudiaren eta legeria aplikagarriaren arabera egingo da, jarduera finantzario horri eta eduki ekonomikoa osatzen duten egintzei dagokienean, ondoko modalitateetan:

- a) Kontu-hartzaitzaren eginkizuna.
- b) Kontrol finantzarioa eta auditoria.
- c) Eraginkortasun kontrola.

Bi. Kontu-hartzaitzaren eginkizunak, ondoko artikuluetan araututako fiskalizazio mugatuaren bitartez egikaritu daitekeen arren, eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak aitortzen zaizkien Udalaren eta Erakunde Autonomo guztien egintza guztiak kontrolatzeko helburua dauka, baita euretatik ondorioztatzen diren diru-sarrerak eta ordainketak eta diru-bilketa, inbertsioa edo, orokorrean, ondasun publikoen aplikazioa ere, Herri-ogasunaren administrazioa kasu bakoitzean ezarritako xedapenei egokitzen zaiel ziurtatzeko helburuarekin.

Hiru. Kontrol finantzarioaren helburua da egiaztatzea, zerbitzuen ekonomia eta finantzen aldetiko jarduera, eta Erakunde Autonomoak, ordenamendu juridikoari, hala nola kudeaketa finantzario onaren printzipio orokorrei egokitzen zaizkiela. Kontrol horretan eraginkortasuna eta eragimena, hala nola organo edo erakunde bakoitzak egindako eragiketa guztien erregistroa eta kontabilizazioa eta, xedapen aplikagarrien arabera, beroriek osatu behar duten kontuetan eta zatietan isla zehatza egiaztatuko dira.

Lau. Eraginkortasunaren kontrola, erabaki politikoei buruzko iritzirik eman gabe, jardueren egokitasun ekonomikoa aztertuko du, bai egitateen aldetik bai programatutako helburuenetik edota prozesuari lotutako kostuarenetik. Era berean, foru-araudiak eta horri buruzko legeria aplikagarriak jasotzen dituen beste aspektuak aztertuko ditu.

Bost. Kontu-hartzaitzaren eginkizun abere kargu duten funtzionarioak, hala nola kontrol finantzarioak eta eraginkortasunekoak burutzeko izendatzen direnak, erabateko askatasunez egikarituko dute euren eginkizuna eta beharrezkotzat jotzen diren aurrekari guztiak eskatu, beharrezkotzat jotzen dituzten liburuak, kontuak eta dokumentuak aztertu eta egiaztatu, kontaketak eta zenbaketak egiaztatu eta ikuskatu behar den egintzaren, dokumentuaren edo espedientearen izaeraren arabera, hala behar denean, beharrezkotzat jotzen diren txosten teknikoak eta aholkuak eska diezazkiokete dagokionari.

Sei. Udal Kontu-hartzaitzak egindako barne-kontrolak, hain zuzen ere, kontrol-prozedurak, metodologia aplikagarria, jarduera-irizpideak, kontrolatzaileen eskubideak eta betebeharrak eta kontroleko txosten hartzaileei buruzko arauak bete beharko ditu, foru-araudiaren eta gainerako legeria aplikagarriaren arabera.

Zazpi. Barne-kontrolaren erregulazio honetan xedatutakoaren arabera, kontu-hartzaitzaren eginkizuna nahitaezkoa den kasuetan eta egin ez balitz, ezin izango da betebeharrak hori aitortu, ezta betebeharra, ordainketa edo diru-sarreren likidazioak ere, bere kasuan, ez egite hori ezagutu eta ebatzi arte.

45. artikulua. Kontu-hartzaitzaren eginkizuna gastuen aldetik egikaritzean, fiskalizazio mugatuaren bitartez

Bat. Udalbatzak, aurrekontuaren araudian aurreikusitakoaren arabera, artikulua honetan dauden aspektuen aurretiazko fiskalizazio mugatua onetsi eta ezartzen du. Nolanahi ere, betebeharretan edo gastuetan fiskalizazio mugatua eragin zuten egintzen, dokumentuen edo espedienteen lagin esanguratsuz, a posteriori fiskalizazio osoaren bitartez egiaztatu daiteke.

Bi. Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko egintza guztien aurretiazko fiskalizazioak eta kontu-hartzaitzak ondoko eskakizunak aztertu eta egiaztatuko dituzte:

- a) Aurrekontuko kreditu loteslea egotea, eta proposatutakoa egokia dela. Honi dagokionez, kreditua egokia dela ulertuko da udal Diruzaintzak hartu beharreko edo

sortutako eta irauungi ez diren betebeharrak finantzatzen dituenean, horretarako lege ezarritako eskakizunak betez:

- b) Betebeharrak edo gastuak organo eskudunak sortzen dituztela.
- c) Gastua finantzatzeko baliabideen benetako erabilgarritasuna.
- d) Betebeharra edo gastua Toki-erakunde honek bete ditzakeen eskumenen barruan dagoela, edo, eskumen inpropioak badira, betetzen jarraitu dezakeela, aurretiaz indarrean dagoen legeriaren arabera eskakizunak betez.
- e) Betebeharrak edo gastuak ez duela aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzen iraunkortasuna arriskuan jartzen.
- f) Betebeharrari edo gastuei oinarria ematen dieten dokumentuak zuzenak direla eta behar diren sinadurak eta eskakizunak betetzen dituztela. Honi dagokionez, gastuaren betebeharra aitortzeko dokumentazio euskarriak, zerbitzua, horniketa, inbertsioa edo gastuan ziurtatzen duen edo ontzat ematen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa eramango du.
- g) Konpromiso-kredituen eta urte anitzeko gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Toki-erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauak ezarritako mugak eta eskakizunak betetzen direla.
- h) Betebeharra edo gastua egozten zaion aurrekontuko partidak denborazko, hala nola espezialitatezko eta berezitasunezko arauak betetzen dituela, gastuaren izaera funtzionala eta ekonomikoaren, eta, bere kasuan, organikoaren arabera.
- i) Kudeaketa-prozesuan duten transzendentziagatik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabakitzen dituen bestelako aspektuak.

Hiru. Aurreko atalean dauden aspektuez gain, kontratuetatik, hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik datozen betebeharrak edo gastuak, hala nola pertsonaleko eta bestelako gastuak sortzen dituzten ekintzen fiskalizazio mugatuak, gainera, ondoko aspektuak egiaztatuko ditu:

- a) Kontratuetatik eratorritako betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, ondokoa egiaztatuko da:
 - Pleguak, hautatze-irizpideak, hala nola horien balorazioa eta kontratazio-prozedurak, Sektore Publikoaren kontratu arloan indarrean dagoen legeriara egokituta daudela.
 - Kontratuaren eta aukeratutako prozeduraren justifikazioa.

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

- Kontratueta aldaketak egon daitezkeela, legearen arabera aurreikuspena.
 - Kontratuaren iraupena, luzapenak barne, egiaztatzea eta justifikatzea.
 - Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagotan burutuko diren kontratueta, gastuaren Sail kudeatzailearen arduradunek kontratuaren denborazko eta finantzazko plangintza egin dela.
 - Obretan, hasi aurretik zuinketa-akta, azken harrera-akta eta azken ziurtagiriaren onarpena jasota egotea.
 - Pleguak, exekuzioa ekitaldi bat baino gehiagoz luzatuko balitz, aurrekontuko aplikazioak eta gastuak inplikaturik dauden aurrekontu-ekitaldi bakoitzean xedatutako zenbatekoak zehaztuta egotea.
 - Azken batean, kontratueta eratorritako gastuen kontrolean jasotako aspektu guztiak egiaztatzea.
- b) Hitzarmeneta eta diru-laguntzeta eratorritako betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, ondokoa egiaztatuko da:
- Diru-laguntza izendunak helburua eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontuko partida duela.
 - Diru-laguntza izendunaren espedientearen prozeduraren egokitasuna justifikatzea norgehiagoka bidearen salbuespen gisa.
 - Egin beharreko hitzarmenaren helburua Sektore Publikoaren Kontratueta Legearen Testu Bateginak araututako kontratueta sartuta ez egotea.
 - Hitzarmena edo diru-laguntza, behar bezala zehaztuta, diru-laguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.
 - Hirugarrenaren egiaztatze-agiria edo administrazioaren kabuz egiaztatzea onuraduna zerga-betebeharretan eta Gizarte-segurantzaren aurrean egunean dagoela.
 - Onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez dagoela.
 - Onuradunak justifikatzen duela funtsen destinoa, hitzarmenean edo deialdiaren

oinarrietan ezarritakoaren arabera eta diru-laguntzen legediaren arabera. Era berean, frogagiriaren egiaztapenari buruz diru-laguntzaren Sail kudeatzaileak egindako txostena espedientean egotea.

- Diru-laguntzaren espedientean dauden datuen mekanizazioa zuzena dela egiaztatzea.
 - Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen legediaren arabera, funtsezkotzat jotzen diren beste aspektu batzuk.
 - Azken batean, hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik eratorritako gastuen kontrolean jasotako aspektu guztiak egiaztatzea.
- c) Langileen gastuetatik eratorritako betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, ondokoa egiaztatuko da:
- Indarrean dagoen ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak ezarritako eskakizunak eta mugak, eta gainerako legeria aplikagarria betetzea.
 - Langileen Sail arduradunaren txostena dagoela, proposatutako gasturako eska daitezkeen lege-eskakizunak bete direla egiaztatuz.
 - Izaera finkoa edo aldizkako epemugarik gabeko ordainsariak (eskersariak, ordu estrak, indemnizazioak,...) aitortzen dituzten gorabeherak egonez gero, organo eskudunak emandako ebazpena edo erabakia espedienteari eransten zaiola, ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortuz.
 - Egiaztatze aritmetikoa, nominaren guztirakoa aurreko hiletik ateratzen denarekin koadratuz, gehi dagokion hileko nominan dauden aldaeren batuketa aljebraikoa.
 - Indarrean dagoen legediaren arabera, funtsezkotzat jotzen diren beste aspektu batzuk.
 - Azken batean, langileengandik eratorritako gastuen kontrolean jasotako aspektu guztiak egiaztatzea.
- d) Izaera desberdineko beste gastu batzuk:
- Kutxa aurrerakinerako gehienez egin daitezkeen gastua arautzen duen erabakia badagoela.

- 18.000 euro edo gehiagoko ondare-erreklamazioetan, EAeko Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpena badagoela.
- Betebeharraren edo gastuaren izaeraren arabera, funtsezkoak diren beste eskakizun batzuk.

Lau. Kontu-hartzaitzako organoak egokitzat jotzen diren ohar osagarriak egin ditzake, espedienteen tramitazioan inoiz ere ez etendurarik eragin gabe. Gainera, ohar osagarri hauei dagokienez, ezin izango da desadostasunik planteatu.

Bost. Ez dira aurretiaz fiskalizatu beharko, 5.000,00 eurotik beherako kontratu txikiak. Nolanahi ere, Sail kudeatzailearen erantzukizuna izango da aurrekontuko aplikazioetan krediturik badagoela egiaztatzea.

Sei. Aldez aurreko kontrol mugatu honek, hurrengo artikuluetan garatuta dagoen bezala, a posteriori beste fiskalizazio oso bat darama berekin, auditoria eta laginketa teknikak erabiliz. Emaitza, barne-kontrolaren urteko txostenaren barruan islatuko da, a posteriori egindako kontu-hartzailearen kontrol osoari buruzko txostenaren titulupean.

46. artikulua. Eragozpenak eta tramitazioa

Bat. Aurreko 2. artikuluko Bi eta Hiru ataletan dauden aspektuak aztertuta, kontu-hartzaitza organoak arrazoituz egindako txostenean, fiskalizazio mugatuan egiaztatutako aspekturen bat ez dela bete adierazten duenean, berdin idatziz “Eragozpen Txantilo Normalizatu” batean jaso beharko du, eragozpena jarri zaien aspektuen laukian markatuz, hala nola txantilo horretan ondorioak eta tramitazioa adieraziz.

Fiskalizazio mugatua egiteko gehienezko epea, fiskalizatu beharreko espedientea jasotzen denetik bost egun baliodunekoa izango da.

“Eragozpen Txantilo Normalizatu” organo kudeatzaileari bidali beharko zaio, arduradun tekniko gorenari edo zuzendariari zuzendutako kopiarekin.

Organo kudeatzaileak, eragozpenarekin ados egonez gero, espedientea zuzendu, edo horren tramitazioan atzera egin dezake.

Organo kudeatzaileak espedientea zuzenduko balu, berria kontu-hartzaitza organoari bidaliko dio.

Organo kudeatzailea ados ez badago, desadostasun-txostena egingo du. Kasu honetan, desadostasuna gehienez bost eguneko epean egin beharko da, desadostasun-txostenaren kopia kontu-hartzailletza organoari eta organo eskudunari bidaliz, gastua onetsi dezan (Alkatea, Zinegotzi Delegatua edo Udalbatza, tramitazioa dagokionaren arabera, eragozpena duen xedeari jarraiki eta berori etengarria den ala ez kontuan izanik). Horrela, ondoko bi egoera izango ditugu:

A. Udalbatzak indargabetu behar dituen eragozpenei buruz:

Eragozpen etengarria: 46. artikuluko Bi atalaren a) eta b) hizkiak, hala nola betebeharrak edo gastuak Udalbatzaren eskumenekoak direnean.

Indargabetzea 46. artikularen a) hizkiari buruzkoa denean, krediturik ez edo askirik ez dagoelako, indargabetzea, nahitaez, gastua estaliko lukeen aurrekontuaren aldaketarekin batera planteatu beharko litzateke.

Ondorio etengarria duen “Eragozpen Txantilo Normalizatua”ren tramitazioa Udalbatzaren Erregelamendu Organikoan dauden xedapenen arabera egingo da, edo, halakorik ezean, tokiko araubidearen antolaketa arloko oinarrizko legeriari jarraituko zaio.

B. Eragozpenak indargabetzeko tramitazioa Alkate Udalburuari dagokionean: Alkate Udalburuak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eska ditzake irizpide handiagoz ebaztearren. Zentzu horretan, ondorio etengarria ez duen “Eragozpen Txantilo Normalizatua”n jasotako arauak betetzeari buruz, Kontu-hartzaileak emandako iritzia ez zaie kudeaketa-organoei nagusituko ezta, finantza-tutoretza eman zaion Administrazioaren arloaren arabera, Alkate Udalburuak eskumena duen organoari eska diezaiokeen txostenei gailenduko ere.

Bi. Kontu-hartzailletza organoak duen irizpideari jarraitzen ez zaion kasuetan, organo kudeatzailea, arduradun teknikoaren edo zuzendaritzako arduradunaren bitartez, arduratuko da erabakia hartzeko ebazpenean berariaz jaso dadin, erabaki hori hartu dela kontu-hartzailletza organoaren ohartarazpena ikusita eta aztertu ondoren.

Hiru. Hurrengo urteko ekainaren 30 baino lehen, eta barne-kontrola arautzen duen testu honetan jasotako baldintzetan, kontu-hartzailletza organoak, Toki-erakundearen Presidenteak eragozpenen aurka hartutako ebazpen guztiak jasotzen dituen txostena

aurkeztuko dio Udalbatzari.

47. artikulua. Kontu-hartzaileak a posteriori egindako kontrol osoari buruzko txostena

Bat. Fiskalizazio mugatuaren onespina eta ezarpena dela eta, kontu-hartzailletza organoak, kontrol finantzarioaren urteko txostenarekin batera, gastuen espedienteen lagin adierazgarri bati buruz kontu-hartzailearen kontrol osoak a posteriori egindako jardueren emaitza emango du.

Kontu-hartzailletza organoak, lagina hautatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztuko ditu, eragiketa-multzo jakin batzuen akatsei buruzko aurretiazko informazioa duen kasuek, hala nola akatsen bat antzeman den prozedurek lehentasuna izanez. Gainera, lagina gutxienez indarrean dagoen Aurrekontuari buruzko %1 izango da.

Bi. Txosten hori Udalbatzari bidali aurretik, eragindako Unitate kudeatzaileei helaraziko zaie, gehienez 10 eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten, horiek ikusita kontu-hartzailletza organoak behin betiko txostena egin dezan.

48. artikulua. Kontu-hartzailletzaren eginkizuna diru-sarreraren aldetik egikaritzean, fiskalizazio mugatuaren bitartez

Bat. Udalbatzak, aurrekontu-araudian aurreikusitakoaren arabera, Diru-sarreraren aurretiazko Fiskalizazio mugatua onetsi eta ezartzen du.

Horrela, diru-sarreraren alde aurreko fiskalizazioa, kontabilitatean horren berri izatearekin ordezkutzen da. Sistema honek, gastuetan gertatzen den bezala, lagin baten gainean izandako diru-sarreretan egiaztatze osoa eskatzen du ondorenean, emaitza aurreko 47. artikuluan araututako txostenean jasoz.

Bi. Diru-sarreraren fiskalizazio mugatu hau, ondoko aspektuak egiaztatuz egingo da:

- a) Organo eskudunak likidatzea.
- b) Kontabilitatean jasotzen dela.
- c) Bere kasuan, dagokion BEZ igorria izatea.
- d) Bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko, itzulketaren Sail kudeatzaileak egindako aldeko txostena dagoela.
- e) Errolda eta zerrenda frogatzaileen fiskalizazioan, Sail kudeatzaileak indarrean dagoen

legeria betetzen dela adierazten duen txostena dagoela.

Hiru. Eragozpenak eta tramitazioa:

Eragozpena, Toki-erakundearen edo Erakunde Autonomoen aldeko aitorpena edo likidazioari buruzkoa denean, eragozpen-oharrean formalizatuko da, inoiz ere espedientearen tramitazioa etengo litzatekeelarik.

Organo kontu-hartzaileak “Eragozpen Txantilo Normalizatu” batean idatziz fiskalizazioa adieraziko du, eragozpena duten aspektuei dagozkien laukiak markatuz, txantilo horretan ondorioak eta tramitazioa adieraziz.

Fiskalizazio mugatua egiteko gehieneko epea, fiskalizatu beharreko espedientea jasotzen denetik bost egun baliodunekoa izango da.

“Eragozpen Txantilo Normalizatu” organo kudeatzaileari bidali beharko zaio, arduradun tekniko gorenari edo zuzendariari zuzendutako kopiarekin.

Organo kudeatzaileak, eragozpenarekin ados egonez gero, espedientea zuzendu, edo horren tramitazioan atzera egin dezake.

Organo kudeatzaileak espedientea zuzenduko balu, berria organo fiskalizatzaileari bidaliko dio.

Organo kudeatzaileak, ados ez balego, desadostasun-txostena egingo du. Kasu horretan, desadostasuna gehenez bost eguneko epean egin beharko du, desadostasun-txostenaren kopia organo kontu-hartzaileari eta Alkate Udalburuari bidaliz, ebatz dadin.

Alkate Udalburuak egokitzat jotzen dituen txostenak eska ditzake bere irizpide handiagoaren arabera ebazteko.

Eragozpena indargabetuko balitz, hartu den erabakiaren ebazpenean berariaz adieraziko da, erabaki hori hartu dela organo kontu-hartzailearen ohartarazpena ikusita eta aztertu ondoren.

Urtero, Toki-erakundearen Presidenteak eragozpenen aurka hartutako ebazpen guztiak jasotzen dituen txostena, hala nola diru-sarreraren arloan antzemandako arazo garrantzitsuenen laburpena Udalbatzari aurkeztuko dizkio.

49. artikulua. Kontrol finantzarioaren egikaritzea eta auditoria

Bat. Organo kontu-hartzaileak, kontrol finantzarioaren eginkizuna beteko du, erregelamendu bidez zehazten den erakundeen kontu-auditoria barne.

Bi. Kontrol finantzarioa ondoko subjektuei buruz egikarituko da:

- a) Zerbitzuak, Erakunde Autonomoak.
- b) Merkataritza-sozietateak, enpresak, erakundeak, eta partikularrak, udalaren edo Korporazioaren Aurrekontu Orokorren kargura, diru-laguntzak, kredituak, abalak eta gainerako laguntzak jasotzen direnean.

Hiru. Kontrol finantzarioaren helburua da finantza-informazioaren aurkezpen egokiari buruz, aplikatu beharreko arau eta zuzentarauak betetzeaz eta aurreikusitako helburuak lortzeko izandako eraginkortasun eta eragimen mailari buruz informatzea.

Lau. Kontrol finantzarioa auditoriako tekniken bitartez egikarituko da, besteak beste, ondokoak:

- a) Kontabilitate-erregistroak, kontuak edo finantza-egoerak aztertzea, aztertzeoko prozedura zehatzak aplikatuz.
- b) Eragiketa indibidualak eta zehatzak aztertzea.
- c) Kontrolatutako erakundeak egindako egintzen aspektu partzialak eta zehatzak egiaztatzea.
- d) Inbertsioen eta beste aktiboen egiaztapen materiala.
- e) Kontrola daitezkeen kontuen auditoria-txostenak aztertzea, horretarako legez gaitutako enpresek burututa.
- f) Organo kontu-hartzaileak erabakitako beste egiaztapen batzuk, kontrolpean dauden erakundeek egindako jarduerak dituzten ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Bost. Urtero, Kontu Orokorren espedientearen tramitazioarekin batera, egindako kontrolaren ondorioz, eta barne-kontrola arautzen duen testu honetan jasotako baldintzen arabera, organo kontu-hartzaileak idatziz txostena aurkeztuko du, azterketa horretatik ondorioztatzen diren oharrak eta konklusioak adieraziz.

Kontrol finantzarioari buruzko txostena, auditatutako organoak egindako alegazioekin batera, Udalbatzari bidaliko zaio aztertu eta ezagut dezan.

Sei. “A posteriori egindako barne-kontrol osoari buruzko txostenak” zein “kontrol finantzarioari eta auditoriari buruzko txostenak” duten urteko izaera ikusita, dokumentu bakarrean aurkeztu ahal izango dira, txosten independenteak izan arren. Izan ere, lehenengoa organo kontu-hartzailearen jardunen barruan sartzen da, eginkizun kontu-hartzailea betez era mugatuan jardunez eta, bigarrena baliabide kudeaketan ekonomiaren, eraginkortasunaren eta eragimenaren printzipioak betetzen diren egiaztatzeari dagokio.

50. artikulua. Diru-laguntzen eta laguntza publikoen kontrol finantzarioa

Bat. Organo kontu-hartzaileak egikarituko du onuradunei dagozkien diru-laguntzen eta laguntza publikoen kontrol finantzarioa.

Kontrol-eginkizunetan jasotako diru-laguntza edo laguntza lortzea, xedea edo justifikazioa okerrak direneko zantzuak ondorioztatzen direnean, hori egiteko arduraren eragileek, organo kontu-hartzaileak aurretiaz baimena eman ondoren, erabaki dezakete fakturak, dokumentu baliokideak edo ordezkioak eta zantzu horiek azaltzen diren eragiketei buruzko edozein dokumentu atxikitzea.

51. artikulua. Eraginkortasun-kontrola egikaritzea

Bat. Eraginkortasun-kontrolaren helburua izango da helburuen aldizkako betetze-maila egiaztatzea, hala nola funtzionamenduaren kostua eta zerbitzuen edo inbertsioen errendimendua aztertzea. Hala ere, kontrol horrek ezin izango du erabaki politikoen gaineko iritzirik eman.

Kontrol horrek, foru-araudiak eta gainerako legeria aplikagarriak araututako prozedurei eta printzipioei jarraituko die.

IX. TITULUA: EKITALDIA IXTEKO ERAGIKETAK

52. artikulua. Hartzekoak abenduan seinalatzea

Hartzeko aktiboak eta abenduko aparteko paga jasotzeko nominak ixteko azken eguna hilaren 15a izango da eta, 23. artikuluan adierazitako dokumentazio osoarekin batera, Kontu-hartzaile Orokorriari bidaliko zaizkio kontabilitatea egiteko eta ordaintzeko.

Abenduko hartzeko aktiboak eta aparteko paga batera ordainduko dira hil horren 21a baino lehen.

53. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak egozteko irizpidea

Diru-sarreraren eta gastuen aldi baterako egozpena, ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen arabera egin behar da, eta ez eurretatik eratorritako moneta eta finantzen korrontea ematen denean. Beraz, diru-sarrerak eta gastuak, eragindako eskubideak eta betebeharrak sortzen direnean egin direla joko da, egitate ekonomikotik eratorritako eskubidea edo betebeharra aitortzen duten administrazio-egintzak aurretiaz eman beharko liratekeelarik.

Horregatik, aurrekontu-ekitaldi honi ondokoak egotziko zaizkio:

a) Bertan likidatutako eskubideak, eratorri diren epea edozein dela ere.

b) Abenduaren 31ra arte aitortutako betebeharrak, orokorrean, aurrekontu-ekitaldian zehar egindako eskurapen, obra, zerbitzu, prestazio edo gastuei dagozkienean eta euren kredituen kargura.

54. artikulua. Beste erakunde publiko batzuek kofinantzatutako gastuak

3. artikuluan aipatutako kudeaketako arlo desberdinek udalaz kanpoko erakunde publikoen transferentziekin, osorik edo partzialki, finantzatutako gastuen espedienteak amaitu beharko lituzkete, abenduaren 16a baino lehen.

Aurreko puntuetan adierazitako salbuespenak kontuan hartuko dira Kontu-hartzaile Orokorriak aurretiaz fiskalizatu ondoren.

55. artikulua. Kobrantza zalantzarriaren kalkulua

Kobratzeko zailak edo kobraezinak dira ondoko eskubideak:

a) Eskubideak hartu zirenetik 24 hiletik gorako antzinasunaz behar bezala aitortutako eskubide haien %100, behar bezala bermaturik egon ezean eta likidatzen den hurrengo ekitaldian kobratzea aurreikus daitekeenean. Kasu horretan, eskubide horiek ez dira kendu behar izango.

b) Gainerakoentzat, kobratzeko portzentajeak eta kredituetan gertatzen diren inguruabarrak izango dira kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Alferrikako ondorioak edo hondakinak zuzenean besterenduak izan daitezke enkanteari lotuta egon gabe, Alkateak hala erabakitzen duenean eta kalkulaturako zenbatekoa 601,01 eurotik gorakoa ez denean.

Bigarrena: Toki-erakundeak kontratatutako obren edo zerbitzuen berme gisa sartu behar diren behin betiko fidantzak ordain daitezke, interesdunak eskaturik, banku-abal eran, aipaturako 1098/2001 Errege-dekretuaren 56. artikuluko eskakizunen arabera.

Hirugarrena: Inbertsioko gastuak justifikatzeko fakturak, Arau honetan finkaturako eskakizunez gain, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen indarreko araudiari egokitu beharko zaizkio. Ondorioz, hornitzaileek, egiten duten eragiketa bakoitzeko, nahitaez egin eta entregatu behar dituzten fakturek ondoko datuak izan behar dituzte:

a) Zenbakia eta, bere kasuan, seriea. Zenbakitzea korrelatiboa izango da.

b) Izen-abizenak edo helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, bere kasuan, egilearen eta hartzailearen identifikazio fiskaleko kodea, helbidea, edo ez-egoiliarra bada establezimenduaren kokaleku iraunkorra.

c) Helburu diren ondasunen edo zerbitzuen deskribapena.

d) Eragiketaren kontraprestazio osoa eta, bere kasuan, Zerga-oinarria zehazteko behar diren gainerako datuak.

e) Zerga tasa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota, hurrengo paragrafoan xedaturakoa izan ezik.

f) Aplikatu den zerga tasa adieraztea, prezioaren barruan eragina duenean edo, soili-soilik “BEZ barne” adieraztea, hala baimenduta dagoen kasuetan.

g) Jaulkipen lekua eta data.

Fakturako eragiketak edo eragiketek zerga tasa desberdinen Balio Erantsiaren gaineko Zerga duten ondasunak edo zerbitzuak dituztenean, aurreko paragrafoko c), d) eta e) hizkietan deskribaturako kontzeptuak eta datuak bananduta adierazi beharko dituzte.

Hala ere, zenbakitutako baleen taloitegiak edo, halakorik ezean, makina erregistratzaileak

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

emandako tiketez ordezkara daitezke, ondoko eragiketen frogagiriak:

-Txikizkako salmentak, baita entregatu diren produktuen fabrikatzaileek edo egileek egindakoak ere.

-Salmenta edo zerbitzu ibiltariak.

-Kontsumitzailearen etxeko salmentak edo zerbitzuak

-Pertsonen garraioa.

-Ostalaritza eta catering zerbitzua, jatetxeek, tabernek, kafetegiek, txokolate-dendek, hortxata-dendek eta antzeko saltokiek egindakoa.

-Momentuan kontsumitzeko, aipatutako saltokiek emandako edarien edo janarien horniketa.

-Dantza-aretoak eta diskotekak.

-Telefono-zerbitzuak.

-Ile-apaindegi eta apaindegi zerbitzuak.

-Kirol-instalazioen erabilera.

-Argazkiak errebelatzea eta argazkigintza-estudioak.

-Ibilgailuen aparkaleku eta aparkaldi zerbitzuak.

--Bideoklub zerbitzuak.

Kasu guztietan, baleek edo tiketek ondoko datuak izan beharko dituzte:

-Zenbakia eta, bere kasuan, seriea.

-Egilearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia edo Identifikazio Fiskaleko Kodea.

-Aplikaturako zerga-tasa edo "BEZ barne" adieraztea.

-Kontraprestazio osoa.

2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

Material suntsikorra eskuratzeko, zerbitzuen prestaziorako edo izaera bereko beste helburu baterako Nazioarteko Kooperazioko diru-laguntzen funtsak justifikatzeko, herrialdean edo exekuzio-eremuan dauden arazo bereziengatik (inguru oso isolatuak, gatazka armatua edo ezegonkortasun soziala edo politikoa, erregelatutako fakturak ez izatea e.a.), fakturak eskakizun formalekin lortzeko zailtasun larriak daudenean, gastuak, trafiko juridiko merkantilean edo negozio juridikoa egin den lekuan administrazio eraginkortasuna duten fakturen, ordainagirien, tiketen eta froga-balioa duten gainerako dokumentuen bidez justifikatu ahal izango dira, jatorrizko alean edo fotokopia konpulsatuan edo legez-tatuan, diru-laguntza eta laguntza arautzen duten araudian ezarritako baldintzen arabera.

AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoena, hala nola aplikazioan sor daitezkeen zalantzak daudenean, udal organo eskudunak ebatzitakoa edo erabakitakoa egingo da, Idazkaritzak edo Kontu-hartzaitzak, euren eskumenen arabera, txostena egin ondoren.

Galdakao, 2019ko otsailaren 18a

ALKATEA,

Sin: Ibon Uribe Elorrieta